

LEHEN HEZKUNTZAKO UMEEKIN KIROL ESTEREOTIPOEI BEGIRA: BETAURREKO MOREDUN PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

GRADU AMAIERAKO LANA



EGILEA: Lauzirika Erkiaga, Paul

ZUZENDARIA: Madariaga Lopez, Itsaso.

GRADUA: Lehen Hezkuntza

MINORRA: Gorputz Hezkuntza

2021

LABURPENA: Gaur egun oraindik duela urte askotik datorkigun gaitz bat daukagu gurekin, matxismoa. Gaitz horrek gizarteko eremu gehienetan eragiten du eta kirola ez da horietatik at geratzen. Lan honen bitartez kirolaren munduan generoaren aldetik egungo umeei daukaten ikuspuntua zein den jakinarazi nahi zen. Horretarako, inkesta bat pasa zitzaion Lekeitioko ikastetxe bateko 22 ikasleko talde bati. Haien daukaten ideiak ezagutu ostean generoaren aldetik landu beharreko eta matxismoaren azterna diren gaiak identifikatu ziren, beraz horiei aurre egiteko Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko bat diseinatu zen. Proposamen horrek hainbat ikasgai harremanetan jartzeko asmoa zeukan: Arte Hezkuntza eta Gorputz Hezkuntza. Ikasgai biak aldi berean eman beharrean, prozesu linea baten bitartez lantzea zen helburua (lehenengo saioak Arte Hezkuntzan landu eta gero trantsizio baten bidez Gorputz Hezkuntzara igaro). Ezinbestekotzat hartzen zen, beraz, tutorearen eta espezialistaren arteko koordinazioa ikasleek edukiak ondo barneratzeko. Inkestaren erantzunetan espero ziren emaitza guztiak jaso ez arren, nabari zitekeen kirolaren arloa oraindik gizonezkoiei esleitzen zaiela, presentzia handiagoa emanez edo haien lorpenak emakumeenak baino gehiago goraiatuz. Kasu batzuetan emakumezkoen lanaren ez ikustaraztera ere iristen da, komunikabideek ematen dien bisibilitatea nulua delako edo janzkerari edo gorpuzkerari lorpenei baino garrantzia gehiago ematen diotelako. Beraz, nahiz eta azken urteetan gai honen inguruan aurrera pauso handiak egin diren, oraindik ere lanketa sakonak egin behar direla ikus daiteke.

Hitz gakoak: generoa, estereotipoak, hezkuntza, kirola, ikus kultura

RESUMEN: Todavía hoy, desde hace muchos años el machismo afecta a la mayoría de los ámbitos sociales y el deporte no es ajeno a ellos. Este trabajo pretende dar a conocer la perspectiva de género de los niños y niñas actuales en el mundo del deporte. Para ello, se ha pasado una encuesta a un grupo de 22 alumnos y alumnas de un centro de Lekeitio para conocer sus ideas, detectar las que hay que trabajar desde el punto de vista del género e identificar los temas que son la huella del machismo. Por lo tanto, se ha diseñado una propuesta didáctica para la Educación Primaria, con la intención de poner en contacto la Educación Artística y la Educación Física: en lugar de impartir simultáneamente ambas materias, se trata de trabajarlas a través de un proceso lineal, trabajando las primeras sesiones en la Educación Artística y luego a través de una transición pasar a la Educación Física. Se considera imprescindible, por tanto, la coordinación entre tutor/a y especialista para una buena asimilación de los contenidos por parte del alumnado. En las respuestas de la encuesta se puede notar que el campo del deporte todavía se asigna a los hombres, dándoles más presencia o ensalzando sus logros más que los de las mujeres. En

algunos casos llega incluso a invisibilizar el trabajo femenino, porque la visibilización que les da los medios de comunicación es nula o dan más importancia a la vestimenta o la complexión que a los logros. Por lo tanto, a pesar de que en los últimos años se han dado grandes pasos hacia adelante en torno a este tema, todavía se puede ver que hay que hacer profundas elaboraciones.

Palabras clave: género, estereotipos, educación, deporte, cultura visual

SUMMARY: Currently we have a scourge that has been with us for many years, sexism. This scourge affects most social areas and sports are not free from it. The intention of this work is to reveal the gender perspective of the children in sports nowadays. To this end, a survey was conducted in a class of 22 students from a school in Lekeitio, to get to know their ideas and to detect the issues that needed to be worked on in terms of gender and to identify the signs of sexism. To deal with these issues, a didactic proposal was designed. This proposal had the intention to relate several subjects: Art Education and Physical Education. Instead of tackling two subjects at the same time, the objective was to work it through a linear process (starting in Art Education to transition later to Physical Education). The coordination between the tutor and the specialist is necessary in order for the students to assimilate the contents better. When analyzing the results of the conducted survey, it can be seen that sports are still assigned to men. They receive more presence or positive appraisal of their achievements than women. In some cases, women's achievements are even made invisible by the lack of visibility in the media, which often focuses more on their clothing and body type than their achievements. Therefore, though great strides have been made in recent years to solve this issue, it may still be seen that there is a great deal of work still to be done.

Keywords: gender, stereotypes, education, sport, visual culture

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	1
2.	JUSTIFIKAZIOA.....	3
3.	HELBURUAK ETA HIPOTESIAK.....	4
4.	MARKO TEORIKOA: IKUS KULTURATIK KIROLERA.....	5
4.1.	IKUS KULTURA, KOMUNIKAZIOA, PUBLIZITATEA ETA MODA.....	6
4.2.	SEXUA, GENEROA, IDENTITATEA, ESTEREOTIPOAK, AURREIRITZIAK.....	9
4.3.	GENEROA KIROLEAN ETA HEZKUNTZAREN PAPERA.....	12
5.	METODOLOGIA.....	15
5.1.	INKESTAK.....	15
A.	<i>IRUDIZKO INKESTA</i>	15
B.	<i>IDATZIZKO INKESTA</i>	16
5.2.	PROPOSAMEN DIDAKTIKOA.....	16
A.	<i>TESTUINGURUA</i>	16
B.	<i>KONPETENTZIAK</i>	17
C.	<i>HELBURUAK</i>	19
D.	<i>METODOLOGIA</i>	19
E.	<i>DISEINUA: KIROLARI BEGIRADA MOREA</i>	20
6.	EMAITZAK.....	29
6.1.	IRUDIZKO INKESTARENAK.....	29
6.2.	IDATZIKO INKESTARENAK.....	31
6.3.	PROPOSAMEN DIDAKTIKOARENAK.....	32
7.	ONDORIOAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	33
8.	ERREFERENTZIAK.....	35
9.	ERANSKINAK.....	39
9.1.	DISEINATUTAKO INKESTA.....	39
9.2.	DISEINATUTAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA.....	41

1. SARRERA

Egungo gizartean inguruan daukagunari erreparatuz konpontzeko dauden hainbeste gauzaz jabe gaitzke: ingurugiroari begira kutsadura edo jasangarritasuna esaterako; gizarteari dagokionez matxismoa, sexismoa, gordofobia, arrazakeria, xenofobia, homofobia, LGTBIfobia... Konkretuki lan honetan kirolean dagoen matxismoaz eta kirolei esleitzen zaizkien generoez jardungo da.

Zehazteko, lan honetan sexismoaren inguruan jardungo da, eta bereziki matxismoaz. Izan ere, matxismoa gizarteko hainbat eremutan aurki dezakegu eta kirola horietako bat da. Horregatik gradu amaierako lan honen bidez, ikus kulturarekin erabat lotuta dauden teknologia berriek publizitatearen eta bereziki modaren bitartez dakartzaten ondorio matxista zein sexistei dagokienez umeez nolako jarrera hartzen duten eta haiengan nola eragiten duten aztertu nahi da kirolaren ikuspuntutik.

Illo beretik, modak inplizituki hainbat mezu helarazten dituela argi izan beharra dago. Oso astiro aldatzen doan arren, perfil bakarra erakusten da iragarkietan: denborak eragiten ez dien zuriak, argalak eta "ederrak" diren gazteak. Modu horretara, eskuragaitzak diren idealak sortzen dira, eta araututako kanon horretatik kanpo daudenak norbere irudiarekiko pozik ez egotea eragin dezake, beraz bakoitzaren ongizatean nahasteak izateko arriskuak daude (Díaz, Muñiz eta Quintas, 2010).

Horri aurre egiteko egin da lan hau eta hurrengo helburuak ditu: alde batetik, kirolaren munduan Lehen Hezkuntzako ikasleek dauzkaten generoarekiko estereotipo sexistez jabetzea; bestetik, detektatutako estereotipo horiei aurre egiteko eta gainontzeko irakasleentzako erabiltzeko baliagarria izan daitekeen proposamen didaktiko baten diseinua sortzea.

Horretarako bi inkesta sortu dira. Alde batetik, era laburrean idatziz erantzuteko galdetegi bat; bestetik irudi bidez erantzuteko inkesta bat. Azken horretan, galderak izan beharrean kirol batzuen izenak egongo dira, azpian kirol horietan diharduten kirolariak marrazteko eta marraztutako horiei izena jartzeko, izenarekin kirolari bakoitza zein generorekin identifikatzen duten jakingo baita.

Aipatutako inkestak betetzeko aukeratu den taldea Lekeitioko eskola publikoko 6. mailako ikasleek osatu dute. 22 ume dira, horietako 8 neska moduan identifikatzen dira eta 14 mutil moduan. Inkestetako emaitzak jaso ostean, ikasle talde horrek kirolaren inguruan generoarekiko dauzkan estereotipoak eta gai horrekiko dauzkaten ideiak bildu eta aztertuko dira.

Azterketa hori egindakoan, identifikatutako arazoei aurre egiteko proposamen didaktiko baten diseinua aurkeztuko da. Diseinu hori ez litzateke ikasgai bakarrean lantzeko, Arte Hezkuntzako (hemendik aurrera AH) saioak eta Gorputz Hezkuntzako (hemendik aurrera GH) saioak erabiliko baitira. Ikasgai bietan aldi berean landu beharrean prozesu lineal bat mantenduko da: AHn hasi eta trantsizio baten bidez GHra pasatuko da.

Ikasgai guztiek elkarren arten daukaten harremana ukaezina da, hots diziplinartekotasuna; hau da, ikasgai bat ematen den bitartean inplizituki gainontzeko ikasgaiak landu daitezke. Hori horrela izanik, GHk eta AHk harreman handirik ez daukatela badirudi ere, badaude kasu batzuk elkarlanean jarri daitezkeenak. Horietako bat da GHn landutako gorputz adierazpena, esaterako.

Horregatik aipatutako bi ikasgaien lanketa uztartu nahi da, gainontzeko irakasgaietan errealitatearen inguruan hausnartzen den bezala, AHk zein GHk ere helburu jarrera bera izan behar baitu. Horregatik kasu honetan teknologia berrien bidezko irudien bitartez generoak kirolean daukan egoeraren inguruan transmititzen dizkiguten estereotipoen inguruan hausnartzeko proposamen didaktiko bat plazaratuko da.

Ikasleen erantzunak nahiko positiboak izan dira, inguratzen dien matxismoa eta sexismoa sustatzen dituzten elementuak identifikatzen dituztelako eta orokorrean horri aurre egiteko jarrera hartzen dute. Hala ere, elementu horien existentziak gaitza badagoela adierazten du. Horregatik mota honetako lanketak egiten jarraitu beharra dago.

Horrez gain kontuan izan beharra dago ikasle talde jakin baten ideietatik abiatuta sortutako lana dela sortutakoa. Beraz, beste ikasle batzuetan aplikatu nahi izanez gero, baliteke egokitzapen prozesu bat egin behar izatea. Gainera, aipatutako ikasgaietako batek, GHk alegia, espezialista duen aldetik, beraien arteko koordinazioa ezinbestekoa izango da.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gaiaren aukeraketa hainbat faktorek eragin dute. Alde batetik, oraindik AHri eta GHri beste ikasgaiei baino garrantzia txikiagoa ematen zaielako leku batzuetan; eta bestetik ikasleen kritikotasuna garatzea ezinbestekoa delako.

Gaur egun, iberoamerikar herrialdeetan kalitatezko AH izatetik oso urruti gaude. Hezkuntza erreformez arduratzen direnek zientzietan, matematiketan, teknologian eta hizkuntzetan zentratzea proposatzen dute, arteen murrizketa eraginez (Giráldez eta Palacios, 2014). Eskolek beste ezagutza moduen gainetik pentsamendu linguistikoa zein logiko-matematikoa indartzen dituenek, umeak beste elementu batzuetatik ukatzen dituzte. Izan ere, arteak guztiz garrantzitsua den paper bat jokatzeko du, umeen garapen prozesua gozatzeko baita, sentimendu eta emozioekin konektatzeko duelako (Palacios, 2006).

Gainera, sentimendu eta emozioez gain, García (2012)-k arteak hezkuntzan bete ditzakeen funtzioak zerrendatzen ditu: errealitatearen inguruan hausnartzea, errealitatean eskuratzeko zailak diren intentsitate handiko sentsazio handiak transmititzea, besteekin komunikatzeko eta identifikatzeko bide izatea; alderdi politikoan, ekonomikoan eta sozialean izan dezakeen eraginaz jabetzea, eta daukan balio ekonomikoaz konturatzeko.

AH ez da gutxietsia dagoen ikasgai bakarra; izan ere, GHk ere bigarren mailako plano batean mantentzen den ikasgai bat da. Sáez-López (1999)-ek Administrazioa kritikatzeko esaterako materialaren edo instalazioen eskasiagatik, zuzendaritza taldeak aurrekontu txikiagatik eta ikasgaiari ematen zaizkion orduen kopuru txikiagatik. Gainontzeko irakasleek ere ikasgaia ez dutela behar bezala baloratzen dio, beste gauza batzuen artean, ez dutelako behar bezalako eta behar besteko formazioa jaso; gurasoek ere ez dutela behar bezala baloratzen, seguruenik beraiek lantzen zutena gogoratzen dutelako eta ikasleen aldetik GH gustatu arren atsedenaldiarekin daukan harremanagatik ez dutela daukan garrantzia ikusten.

Bestalde, generoen bereizketa argia ikusten da hezkuntzarekin eta kirolarekin lotura duten hainbat eremutan. Esperientzia pertsonaletan oinarrituz, Lehen Hezkuntzako graduko practicumen bidez jolastokietan zein GHko saioetan ez dela hezkidetzak guztiz bermatu nabaritu da. Jarrera antzekoak hauteman izan ditut eskola kirolean atletismo talde batean ikasle zein entrenatzaile gisa.

3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Aurretik esan bezala, lan honen helburu nagusia komunikabideen bitartez erakusten diren kirolen irudiek umeei transmititzen dizkien estereotipoez jabetzea da. Batez ere, genero bat esleitzen zaien kirolean esleipen horren arrazoiak konturatzea eta kirolean orokorrean generoaren arabera erabiltzen diren irudi estereotipatuez hausnartzea.

Estereotipo horiek zeintzuk diren ikusita eta aztertuta, bigarren helburu bat daukat: Irakasleentzako erabilgarria izan daitekeen proposamen didaktiko bat diseinatzea estereotipo horiek deuseztatzen joan gaitezen. Proposamen didaktiko hori gizarteak orokorrean gutxietsitako bi ikasgai uztartuz egingo da. Alde batetik, AH (proposamenaren lehen zatia) eta bestetik GH (proposamenari amaiera emateko)

Helburu horietatik abiatuta, muturrekoak diren bi hipotesi planteatuko dira. Seguruenik emaitzak hipotesi bien artean kokatuko dira, baina bietako batera gehiago hurbilduko dira. Hona hemen hipotesiak:

1. HIPOTESIA:

Umeei kirolarekiko generoaren inguruko estereotipoen inguruan nahiko hausnarketa egin dutela nabari da, kirola genero bati lotuta ez dagoela uste dutelako, eta hezkidetzari laguntzen ez dioten elementuak identifikatzeaz gain, horiei aurre egiteko jarrera erakusten dute.

2. HIPOTESIA

Umeei kirola orokorrean genero zehatz bateri zuzenduta dagoela edo kirol bakoitza genero bati dagokiola uste dute. Ez dute hezkidetzari sustatzeko beharrik ikusten eta jarrera pasiboa daukate berdintasun ezaren aurrean.

Lan honen bitartez, egungo umeei daukaten kirolaren eta generoaren inguruko ikuskeraz ohartuko gara eta aurreko hipotesietatik zuzena denaren edo gehiago hurbiltzen denaren arabera proposamen didaktikoak funtzio ezberdinak har ditzake, estereotipoen deuseztatzea edo ideien finkapena.

4. MARKO TEORIKOA: IKUS KULTURATIK KIROLERA

Gizarteak orokorrean gero eta erabilera gehiago ematen die teknologia berriei. Azken hamarkadetan teknologiaren garapenaren ondorioz estereotipo eta aurreiritzi jakin batzuk transmititzen dira. Diseinuak, modak, argazkigintzak, publizitateak, zineak, graffiteiek, komikiek eta abarrek zentzu horretan eragin izugarria dute eta hedabideen bitartez gizarteari iristen zaizkio.

Lehen Hezkuntzako umeei pantailak dituzten teknologia berriak etengabe erabiltzen dituzte (Zarraga, 2016); beraz, ikus-entzunezko edukiak eskuratzen dituzte. Askotan eduki horiek umeengan norainoko eragina izan dezaketen jakitea zaila egiten zaie helduei.

Burura lehenengo datozkigun arazoak publizitatea edo moda izan ez arren, gizartean eragina daukate, eta bereziki haur eta gazteengan. Arazo larriagoak egon baitaitezke ere, publizitatek eta modak saltzeko daukaten produktuaz gain irudi bat ere saltzen dute. Irudi hori, normalean, oso estereotipatuta egoten da, hau da, gizartearen ikuspuntu orokor batean oinarritzen da.

Zerbait orokortzen den bakoitzean, orokortasun horretatik kanpo geratzen dira hainbat elementu; beraz, gizartera eramanez gero, hainbat pertsona dira kanpoan geratzen direnak. Kanporatua izateak lekuz kanpo sentitzea dakar, eta horrek sentimendu negatiboak sortzeaz gain autoestimuan ere eragin dezake.

Teknologia berrien bidez publizitateak zein modak estereotipo zein aurreiritziak hainbat arlotara zabaltzen dituzte eta kirola da arlo horietako bat. Kirolaren inguruan transmititutako estereotipo nabariak janzkeraren edo itxura fisikoaren ingurukoak dira, produktu bat saltzeko helburua izaten baitute normalean. Hala ere, generoaren aldetik kirola guztiz estereotipatuta dagoela ikus genezake, kirol jakin batzuk genero batzuei esleitzen baitzaizkie.

Guzti hori kontuan izanik erantzukizun handia dauka hezkuntzak ume eta gazteak guzti horretaz jabetzeko. Etxean eta eskolan jarrera kritikoa izaten erakutsi beharra dago, komunikabideek transmititzen duten gizartea eta errealia ez datozela bat konturatzeko eta, horrekin betara, aipatutako bazterketa ekiditeko, alderdi emozionala zainduz.

4.1. IKUS KULTURA, KOMUNIKAZIOA, PUBLIZITATEA ETA MODA

Herrialde industrializatueta teknologiak sekulako garapena izan du azken urteetan. Gero eta garrantzia handiagoa daukate egunerokotasunean, hainbat aukera ematen baitituzte: informazioa, komunikazioa, aisia... Modu berean, teknologiak jasandako aldaketek ezagutza antolatzeke eran, gizartearen antolaketa zein jarduteke moduan eta giza kognizioan bertan ere erabateke aldaketak eragin dituzte, bereziki subjektibotasunean eta nortasunaren eraikuntzan (González, 2000).

Mirzoeff (2003)-en ikerketaren arabera, gizakiok "ispilu-neuronen" bidez antzematen dugu mundua, eta aldi beran besteen ikuspuntua ulertzeke gai gara. Mirzoeff (2003)-ek etapa historiko bakoitzari dagokion ikusmenarekin lotutako teknologiek zentzumenean antolakuntzan daukaten eragina azpimarratzen du. Hori horrela izanik, esaterako hegazkinen edo trenen garapenak egungo ikus kulturaren ideala baldintzatu zuen, bizitzeko moduko munduak eratuz.

Ikus kultura kontzeptuaren inguruko eszenatokia eta antzezlea bilatzen ditu Mirzoeff (2003)-ek, besteak beste hiriko paisaia (hiri irekiak, itxiak edo globalak), pantaila zinematografikoak edo pinturaren esparrua. Ikus kulturaren ezagutzari ekarpen politiko, sozial eta humanoak egin dizkio. Bere aktibismo bisualari buruzko tesiak pentsamendu bisualari erronka ekarri dio, eta ondorioz ikus kultura eratu da.

Mirzoeff (2016)-entzat 1990. urtean erabilitako metodoak errepresentazio bisualean eta komunikabideetan oinarritzen dira. Telesailek, pop-izarrek edo kontsumorako gizarteak daukazan fetitxeek (markak, deigarriak diren gauzak) interes bisuala areagotzen du genero identitatea eta sexu identitatearen inguruan jarduten duten herri-kultura edo kultura popularraren errepresentazioen bidez. Interes hori desagertu ez den arren, Mirzoeff (2016)-ek dio 2001. urtetik aurrera errepresentazioaren inguruko hausnarketen ondorioz aldaketak hasi zirela. Aldaketa horiek gizarte-mugimenduen bidezkoak ziren eta "ez gaituzte irudikatzen" bezalako esloganak erabiltzen zituzten. Aktibismo bisuala alderdi politiko zein sozialari dagokionez irudikatzen gaituzten erak arduratzearen abiapuntua da.

Aurreko etapa bien arteko ezberdintasuna ikuslearen jokabidearen araberakoa da. 1990ean ikuslearen jarrera hedabideek edo arteak orokorrean egiten zizkiguten irudi edo errepresentazioak kritikatzeko zetzan. 2001etik aurrera, ordea, ikuslearen perspektiba ikus kultura era aktiboan erabiltzean datza, norbere irudia edo errepresentazioak, ikuspuntua eta ikusia izateke modua zein mundua ikusteko era defendatzeko.

Komunikabideek ikus kulturen duten presentzia nabaria da. Horri lotuta, Pérez (2006)-ek adierazten du komunikabideak, gehienetan, banketxeen korporazioak buru dituzten enpresa handien esturturen parte direla, komunikazio bide huts izatetik erabilera-balioa eskuratzera iritsi dira. Hau da, komunikabideek daukaten helburu nagusia beharren bat asetzea da komunikatzeaz gain.

Hori horrela izanik, komunikabideek izugarrizko eragina daukatela ikus kulturen esan dezakegu. Kultura horren helburua komunikazio masiboa baita, beti ere talde sozial batekiko interes jakin batzuk dituzten eta buruan dauden eliteko talde baten aldetik (Bermudez, 2010).

Bermudez (2010)-ek irudia plastika huts bezala aztertu beharrean, komunikazio gisa aztertzen du, hiru atal bereizten dituelarik: igorlea (eliteko taldea), mezua (komunikazio bisualaren helburua), eta hartzailea (gizabanako arruntak).

Cooper (2007)-k ere Informazio eta Komunikazio Teknologiek (IKT-ek), komunikabideek eta ikus kulturak, errealitatea nolakoa den hautemateko eran aldaketa handiak eragin ditzaketela baieztatzen du. Komunikabideek ez dituzte informazioa eta gertaera sozialen interpretazioa eta "egia"-tzat hartzen den ezagutza soilik zabaltzen. Baloreak ere transmititzen dituzte, perspektiba etiko edo hezigarriez gain, kontsumo-gizarterako hartu-eman sozialerako baloreak, jarrera ereduak, giza estereotipoak eta, batez ere, desiragarriak diren kontsumo ereduak. Modu horretara baliozko, pertzepziozko, motibaziozko eta jarrerazko esturturea psikosozialak homogeneizatzen dira, baita gizakion senaren funtsa erabili eta ezezaguna den puntu batera arte eraldatu ere.

Aurretik aipatutako teknologiaz zein komunikabideez baliatzen da publizitatea eta haren eguneroko erabileran hainbat ezaugarri azpimarratzen ditu Villa (1998)-k: 1) Ikus-entzule askorengana zuzendutako edozein komunikabide bidezkoa den 2) komunikazio prozesu bat da; 3) produktu, zerbitzu, ideia edo instituzio bat ezagutzera emateko, 4) bere erosketari edo onarpenari dagokionez informazioa eman edo eragina izan dezan. 5) Limurtzeko bidea den aldetik, dituen helburuak lortzeko eraginkorra den edozein teknika erabil dezakete, manipulazioa barne.

Publizitatearen atal handi bat modak osatzen du eta elkarrekin helburu komertzialaz gain xede kulturala ere badaukatela azaltzen du Diaz (2007)-ek. Gainera modak errealitatearekin bat ez datozen emakumeenganako estereotipo sozialak zabaltzen dituela ere salatzen du, hain zuzen ere edertasuna eta gaztetasuna oinarritzat hartzen dituen objektu perfektu bat bezala adierazten delako emakumea.

Ikerketa berean modak emakumeekiko tendentzia bi bereizten dituela ondorioztatzen da. Alde batetik marka batzuk harreman afektibo eta sexualetan inizatiba daukaten emakume oldarkor eta aktiboak erakusten dituzte. Bestetik, kontrako muturrean, jarrera pasiboa daukaten eta argalegi dauden emakume ahul, makal eta gaixoberak. Nabari daitekeen bezala, kasu biak emakumeen egunerokotasunetik urrun daude.

Díaz (2007)-ek ikerketaren azken ondorio gisa, honela amaitzen du:

Nadie en una sociedad como la nuestra puede escapar de la moda ya que es un fenómeno totalizante. Lo es incluso para aquellos que desean romper con la moda establecida a través de pautas transgresoras como fue el estilo grunge, las rastas y tatuajes o el neohippie. Todos necesitamos y queremos sentirnos aceptados en un grupo de pertenencia que comparta nuestros mismos códigos en el vestir y en el actuar; también aquellos que reivindican algo a través de la moda (Díaz, 2007:18)

Montoya (1998)-k ere bere ikerketa egin ostean, ondorioztatu du umeak ikus-entzunezko mezuez liluratuen sentitzen diren adin tartea 4-7 urte bitartean izaten dela; hau da, nortasuna finkatzeke daukatenean, eta hortaz haietan eragina izateko aukera gehiago dutenean. Hala eta guztiz ere, ez du uste umeak publizitatearekiko pasiboak direnik hedabideak erabiltzeko hezkuntza jasotzen badute. Ikuspuntu horretatik, umea hedabideen biktima huts izatetik esanahi berrien protagonista izatera iristen da. Beraz, gurasoen zein eskolaren erantzukizuna da umei ikus-entzunezko mezuak irakurtzen eta entzuten irakastea ikuspuntu kritiko batetik, bereziki publizitatearekin lotutakoak.

Publizitatean murgilduz, bereziki modari lotutakoan, eskuragaitzak diren gorputzak erabiltzen dira uneoro. Rivarola (2003)-k dioenez argaltasunari balio handiegia ematen zaio, osasuntsu edo sasoiari egotearekin lotutako mezuen bidez, batez ere emakumei zuzendutako iragarkietan. Horrek eragin kaltegarriak izan ditzake, izan ere, gizarteak inposatutako gizarte-modeloaren parte izateko, gazte asko murriztaileak diren dietetan murgiltzen dira eta elikadura-jokabidean nahasteak izateko arriskua garatzen dute, esaterako anorexia edo bulimia.

Komunikabideetako sexismoa, beraz, ukaezina da eta edertasunaren erabilera zehatz batean oinarritzen da. Gizonezkoen gorputzak gero eta gehiagotan agertzen dira objektu gisa; hala ere, emakumezkoak dira gehienbat generoaren aldetik arreta jartzen zaienak. Emakumeen kirolari lotutako iragarkietan, kirolariak erabili beharrean modelo edo aktoreak erabiltzen dituzte. Horretaz gain kirolariak irudikatzeko kode erotikoak eta irudi hipersexualizatuak jartzen dituzte (Menéndez, 2020).

4.2. SEXUA, GENEROA, IDENTITATEA, ESTEREOTIPOAK, AURREIRITZIAK

Orain arte komunikabideek, publizitateak, zein modak hainbat aurreiritzi eta estereotipo transmititzen dituztela adierazi da, baina zer diren azaldu gabe. Nahiz eta ezberdinak izan, askotan estereotipoak aurreiritziekin nahasten dira. Aurreiritziak ezkorra den karga afektibo bezala definitzen dituzte Espinosa, Calderon-Prada, Burgas eta Güímac (2007)-ek, beti ere talde bati, osotasunean, edo pertsona bati, talde horren parte izateagatik, zuzenduta badaude. Normalean estereotipo eta aurreiritziak hiru ezaugarritan oinarritzen dira: adina, sexua eta arraza; baina beti ez da hain erraza kategoria sozialak identifikatzea.

Allport (1971)-entzat aurreiritzia talde batekoa den pertsona batekiko jarrera mesfidati eta etsaitasunezkoa da, talde horretako parte izate hutsagatik talde osoari egotzi zaizkion ezaugarriak bereganatuz. Euskaltzaindiak, aldiz, “zerbaiti buruzko iritzi edo ustea, hura ezagutu edo azertu aurretik sortua” bezala definitzen du aurreiritzia, Azken definizio horrek aurreiritziak positiboak zein negatiboak izan daitezkeela sartzen du, baina egia da tendentzia negatibizatzea dela.

Bestalde, estereotipoei dagokienez, Espinosa, Calderón-Prada, Burga eta Güímac. (2007)-entzat, beste autore batzuetan oinarrituta, jende askok partekatzen duen pertsona, instituzio edo ekintza maila baten irudikapen mental sinplifikatuak dira. Errealitatean oinarritzen dira eta gure inguru sozialera hurbilpen bat egiteko balio dute. Hala ere, funtsik gabeko orokortzeek taldeen arteko gatazkak sortzen dituzte.

Laburbilduz, aurreiritzi zein estereotipoek pertsonok elkarri egiten dizkiogun irudi distorsionatuak osatzen dituzte, batez ere talde sozial batekiko kanpo eraginen bat badago. Kasu honetan generoaren aldetik hainbat aurreiritzi zein estereotipo aurki ditzakegu.

TEDx Talks (2017)-n Yolanda Dominguezek komunikabideetan erakusten dituzten gizonezkoen eta emakumezkoen irudietan bereizketa bat salatzen du: Gizonezkoak zutik, harro, jantzita eta botere jarrerarekin erakusten dituzte; emakumeak, ordea, arropa gutxirekin eta erorkorrak zein hauskorak balira bezala erakusten dituzte. Aldi berean estereotipoak guztiz barneratuta ditugula dio; izan ere, “neskak printzesak dira eta beraien edertasunaz arduratu behar dira” edo “mutilak astakilo hutsak dira, ostikoak nahiz ukabilkadak ematen dituzte eta arazo guztiak indarkeriarekin konpontzen dituzte” bezalako esaldiak askotan entzuten ditugu.

Gizon eta emakumeei esleitzen zaizkien ezaugarriak kontrajartzen direla eta guztiz desberdinak direla badirudi ere, genero-rol bakoitza bereizia eta besteekiko osagarria

da (Velázquez, 2010). Rol femeninoak ugalketa, hezkuntza, zaintza, emozioekin eta abarrekin lotzen dira eta etxeko eremura mugatuta daude; bestalde, rol maskulinoak produkzio, mantentze-lan eta sostengu ekonomikoarekin lotutako arloekin erlazionatzen dira, eta batez ere arlo publikoan garatzen dira. (Marcía, Mensalvas eta Torralba 2008).

Aurrekoarekin lotuta, gizonetzkoak indartsuak izatea, negarrik ez egitea, independenteak izatea eta lehiakorrak izatea espero da; emakumezkoak, aldiz, maitekorrak izatea, emozioak adieraztea, adeitsuak izatea eta besteei laguntzea itxaro da. (Matud et al., 2002-en artikuluan Helgeson, 2002)

Dominguezek, TEDx Talks (2017)-en, estereotipoen ondorio nagusia, estereotipo jakin horren parte ez den oro ikusezin bihurtzen dutela da, beraz estigma bilakatzen da, normala ez den zerbait balitz bezala. Ikusten den guztia, gizartearentzat ona edo txarra den zalantzan jarri gabe, normalizatuta dagoen bitartean, ikusten ez denak higuina edo gorrotoa sortzen du.

Genero-rolak aipatu dira, baina ze da generoa? Generoa bizitzan zehar gizarteak inposatutako modeloak erreparatuz eta imitatuz garatzen dugun eraikuntza sozial, kultural, psikologiko eta ideologiko bezala ulertzen dugu. Prozesu kognitibo, moral, afektibo eta sozialen elkarrekintzaren bitartez pertsona bakoitzak autokontzeptu bat sortzen du, normalean estereotipoz jositako ezaugarriekin (Barberá eta Mayor, 1989). Planteamendu horrek alderdi biologikoaren eta kulturalaren etengabeko elkarrekintza zegoela defendatzen zuen, gizon eta emakumeen arteko dimorfismo sexuala eta bakoitzaren emaitza soziokulturala: maskulinitatea eta feminitatea.

Gizartean denbora luzez ezarrita egon arren, John Money iparamerikar endokrinologoak 1955ean erabili zuen lehenengo aldiz genero kontzeptua sexu kontzeptutik bereizteko. Izan ere, Udry (1994)-ren arabera Money-rentzat sexuak sailkapen biologikoa egiten du (arra eta emea); generoa, aldiz, sexuaren arabera jokoaren ezberdintasunaz arduratzen da. "Genero-rol" kontzeptua proposatu zuen gizon eta emakumeei esleitzen zaizkien jokamoldeak deskribatzeko. Hala eta guztiz ere, kontzeptua ez zen gizartera zabaldu 70. hamarkadara arte, mugimendu feministarekin batera.

Aurrekoarekin bat, Maffia eta Cabral (2003)-ek diotenaren arabera, 70. hamarkadan teoria feministan genero kategoria sartzearekin batera, identitate femeninoarekin eta maskulinoarekin lotutako estereotipoak, bakoitzaren rol sozialak eta haien arteko botere harremanak hausteko helburua zeukaten hainbat analisi hasi ziren martxan. Bi

pausutan oinarritzen zen lana: alde batetik, sexua eta generoa bereiztea, bigarrena sexu biologikoaren irakurketa kultural gisa ulertuta; bestetik, genero desberdintasunek bizi sozial osoa zeharkatzen duela erakustea, beraz gizartea bereizi edo sinbolikoki bereizten du. Horrela generoaren rol femenino zein maskulinoak desnaturalizatu zituzten, sexuaren naturaltasunari kontra egin gabe.

Egungo analisiak aurreko irakurketaren atal batzuk mantentzen dituzte. Ezberdintasun sexualak daudela ez dute ukatzen, bai ordea ezberdintasun horietatik sortutako estereotipoak, sexuak aitzakiarik gabeko materialtasuna osatuko balu bezala.

Genero eta sexu kontzeptuen bereizketa garbia egin zuen Robert Stoller-ek hainbat ikerketa burutuz. Ikerketa horietan fisiologikoki "beraiena ez zen sexuaren" (genitalen kanpoko ezaugarriak zalantzatsuak ziren) arabera hezi zituzten umeetan ikusi zuen hezitako sexuaren araberrako jokaera zutela.

Horrez gain, kontuan izan behar dugu mendebaldeko kulturetan jaio bezain pronto gizartearen parte garela, ondorioz, bi talde handitan bereizten gaituztela: neskak eta mutilak. Hazten goazen heinean indibiduo bakarra eta gainontzekoen aldean ezberdina garela jabetzeaz gain, norbere sexua eta generoa zein den ezagutzeko prozesua jasaten dugu, norbere autokontzetua eraikiz. Bakoitzaren generoaren eraikuntzak ez daukan zertan besteengan eraginik izan behar, hala ere, rol, jarrera eta estereotipoen ikasketaren ondorioz garatzen da (Barberá, 1998). Ezberdintasun biologikoak ez datozela bat portaera edo rol ezberdinekin da prozesu horren ondorioa.

Carver, Yunger eta Perry (2003)-k diotenez, jaiotzetik daukagun sexu biologikoaren arabera, jarrera, ekintza, balore, sinbolo eta aukera-itxaropen jakin batzuk egozten dira esleipen sozialaren ondorioz, hots, pertsona batek berak daukan genero kategoriaren inguruan dituen sentimendu eta pentsamenduen multzoaren ondorioz. Azken hau genero-rol bezala da ezaguna.

Generoa eta genero-identitatea ez dira gauza bera, Sanchez (2020)-en arabera generoa sozializazio eta kulturaren ondorioa da; identitatea, aldiz pertsona bakoitzak bere buruarekiko duen ikuskera da. Kontzeptu hauek sailkatzerakoan, alde batetik generoa bi multzotan bereiz dezakegu, genero binarioa (maskulinoa edo femeninoa) eta genero ez binarioa (maskulino eta femeninoarekin identifikatzen ez diren guztiak). Bestalde, genero identitatean ere hainbat multzo aurki ditzakegu: zisgeneroak, genero identitatea eta sexu biologikoa bat datozenean (emea-femeninoa, arra-maskulinoa), genero binarioarekin koinzidituz; transgeneroak, bestalde, sexu biologikoa eta

generoak bat egiten ez dietenak dira, horregatik genero binarioarekin bat egitea edo ez egitea izan daiteke.

Transgenero identitatearen barruan, hainbat identitate aurki ditzakegu; besteak beste, queer generoa edo gorputza hausnarketa proposamen gisa daukatenak, hortaz genero honetako pertsonak maskulinoaren eta femeninoaren nahaste bat sentitzen dira, edo bietako bat ere ez (Coll-Plans, 2013).

Sanchez (2020)-ek Aurreko aukera horretatik beste identitate batzuk azaltzen ditu: ageneroak edo genero binarioko generoekin identifikatzen ez direnak eta bigeneroak edo biekini identifikatu eta momentuaren arabera genero maskulino zein femeninoa erabiltzen dutenak. Azkenik pangeneroa eta genero fluidoak ditugu, lehenengoak identitate guztiekin era iraunkorrean identifikatzen direnei egiten die erreferentzia; bigarrenak, osterak, generoen arteko trantsizio periodoak egiten dituztenei.

Amaitzeko, Sanchez-ek pertsona bakoitzak sortzen eta garatzen duela bere genero identitatea azaltzen du, pertsona transgenero bakoitzak bere genero identitatea modu ezberdinetan adierazten baitu. Batzuk gustora sentitzen diren identitatearekin bat egiteko keinu, jarrera, arropa... ezberdinak erabiltzen dituzte, beste batzuk operatu egiten dira gorputzak eta identitateak bat egiteko (transexualitatea), eta beste batzuk ez dute kirurgiarik behar beraien buruarekin gustura egiteko.

Atal honekin amaitzeko aipagarria da estereotipo eta aurreiritziek diskriminazioa eragin dezaketela. Izan ere, honela definitzen du Fernández (2011)-k diskriminazioa: pertsona edo talde sozial jakin baten eskubide zein askatasunei kalte egiteko helburuarekin, estereotipatutako pertsona edo talde batekiko sistematikoa den jarrera izatea, negatiboa den aurreiritzi edo estigma jakin bat daukana eta printzipioz merezi gabeko desabantaila duena. Horregatik hezkuntzak horri aurre egiteko papera hartu behar du.

4.3. GENEROA KIROLEAN ETA HEZKUNTZAREN PAPERA

Hezkuntza eta kultura arloetan, genero perspektibari dagokionez parekotasun eza nabaria dela salatzen du Tuero eta Zapico (2014)-k. Adierazpen hau kirolaren munduan historikoki antzinako garaietako da, kirola gizonetzkoentzat soilik baitzen, emakumeei tokirik utzi gabe. Greziako Olinpiar Jokoetan parte hartzaile guztiak gizonetzkoak ziren. Hainbat urte geroago ere, lehenengo Olinpiar Joko modernoetan (Atenas) egoera bera mantentzen zen, Pierre de Coubertinlas-ek emakumeak baztertu zituen kirolerako ez zeudela prestatuta argudiatuz (Perez, 2012). Bigarren edizioan, 1990an Parisen eginga, emakumeak parte hartu zuten hainbat modalitatetan, tenisean,

golfean eta croquetean. Hura izan zen emakume kirolariak era internazionalen zabaldu ziren urtea. Hala ere emakumeek %1,6-ko presentzia soilik izan zuten gizonezkoen aldean.

Espanian *Libre de Enseñanza* erakundearen eskutik martxan jarri zuten emakumeen heziketa fisikoaren aldeko propaganda. García-Ferrando (1989)-k adierazten duen bezala, garai hartako kirol eredu anglosaxoia guztiz sexista zen. Ez zegoen ondo ikusia xaloa, adeitsua, isila, esanekoa eta amatasun zein etxeko zereginak egiten dituen emakumeak bere betebeharrak alde batera uztea kirolean aritzeko. Kirol-sistema “gizonek gizonentzat” antolatuta zegoen, eta egoera horretan emakumeak kirolaren gizon-eremuetatik isolatuta geratu ziren (Sánchez eta Rivero, 2013).

20. hamarkadara arte emakumeen kirola ia-ia ez zen existitzen, ordura arte goimailako klaseetako gutxi batzuk besterik ez zutelako praktikatzen (Simón, 2009). Kirol horiek izaera indibiduala zuten normalean, eta kasu gutxi batzuetan gizonezkoekin partekatzen zuten: ehiza, ekitazioa, tenisa, txirrindularitza, txangozaletasuna, eskia, uso-tiroa, patinajea edo dantza.

1918an emakumezkoen kirolean aldaketa nabaria egon zen, belar-hockeyko emakumeen taldea sortu baitzen, bi urte geroago talde-ofizial bihurtuz. Talde hori “Club Athletic de Madrid” izan zen eta emakumezkoen lehen kirol taldea izan zen Espainian. Emakumeen kirola bultzatzeari ekin zioten, Ingalaterra, Frantzia eta Alemaniako taldeek egin zuten bezala. Iniziatiba horri jarraituz, *Gran Vida* kirol-aldizkarian Bartzelona, Bilbo, Donostia, Sevilla edo Vigo bezalako hiriei taldeak osatzea eskatu zien gizonezkoek bezalako txapelketak egiteko (Torrebadella-Flix, 2016).

1924ko Parisko Olinpiar Jokoetan emakumeen parte hartu edo ez eztabaidatu arren, presentzia handi izan zuten. Prentsak tarte bat uzten zion emakumeen kirolari, kontzeptu aurrerakoi eta modernista iruditzen baitzitzairen. Horrek emakumeen kirola sustatzea eragin zuen, Espainian batez ere Olinpiar Joko horietan Rosa Torres eta Lili Álvarez tenisten irudien bitartez. Sektore kontserbadoreek ordea hori geldiarazi nahi zuten eta emakumeen armen erabilera, praktikak janztea eta edertasunaren ustezko galera kritikatzeko zituzten.

Hala eta guztiz ere, XX. mendeko lehen hereneko nazioartekoena den kirolariaren, Lili Álvarez-en, protagonismoa nagusitua, ez zen emakume gehienek helmugaren ordezkaria; izan ere, Álvarez gizonezkoek idealizatutako emakume kirolari aristokratiko baten prototipo zen, emakumeen helmugan eta sektore kontserbadoreenaren feminitatearen nahiaren oreka bilakatuz (Pastor, 2011)

Antzeko egoerak gertatzen dira gaur egun; izan ere, emakumeek beraien kiroleko ekintzengatik ezagutuak izan nahi duten bitartean, honakoak aurki ditzakegu Matito (2020)-ren arabera: interneten “Listado actualizado de las 10 deportistas más sexys de la historia” edo *Marca* aldizkariak egunero emakume kirolari baten kirolarekiko zerikusirik ez daukan argazkiak jartzen dituen “Chica As” sekzioa. Azken hau 2017an salatua izan zen Emakumearen Institutuaren aurrean; oharra Ana Sánchez Navarrok, FSC-CCOO-ko Emakumeen Idazkaritzako Zuzendariak, idatzi zuen eta honela zioen:

Resulta lamentable observar cómo a diario esta publicación viene utilizando la imagen de la mujer fundamentalmente como reclamo, con fotos que poco o nada tienen que ver con la actividad deportiva que realizan. Por contrario, los hombres aparecen recibiendo trofeos o celebrando triunfos (Matito, 2020: 11).

Generoari dagokionez gazteengan neska zein mutilek interes antzekoak dituztela ariketa fisikoaren inguruan adierazten dute Blández, Fernández eta Sierra (2007)-k beraien ikerketan; hala ere, mutilek ariketa fisiko gehiago egiten dutela ikusi dute, eta gustu zein nahien arabera hainbat kirol generoarekiko estereotipatuta daudela ondorioztatu dute. Horren adibide dira, “aktiboagoak”, “oldarkorragoak” edo “arriskutsuagoak” diren eta indar edo erresistentzia “gehiago” eskatzen duten kirolak (errugbia, futbola, boxeoa, karatea edo motoziklismoa esaterako) kirol maskulinoztat hartzen dira; ostera “lasaiagoak” diren eta erritmoarekin, adierazpenarekin, elastikotasunarekin, malgutasunarekin edo koordinazio “gehiago” behar dutenak (dantza, yoga, boleibola, aerobica edo gimnasia artistikoa adibidez) kirol femeninoztat.

Blández, Fernández eta Sierra (2007)-ren ikerketan ere ikus daiteke, errugbia, futbola, boxeoa, karatea edo motoziklismoa bezalako kirolak maskulino bezala daude ikusita; dantza, yoga, boleibola, aerobica edo gimnasia artistikoa, aldiz, kirol femeninoztat hartzen dira.

Aurretik aipatutakoagatik, tradizionalki maskulinoztat dauzkagun baloreak lotzen zaizkio kirolari, horregatik emakume asko ez dira kirolaz erakartzen, harekiko sozializazio goiztiarrik izan ez badute (García-Ferrando, 2006). Tradizionalki gizonezkoentzat den arlo horretan emakumeek tarte bat eskuratzea zaila izateri, erakundeen eta babesleen laguntza eza eta emakumeen kirolaren praktikarako laguntza publiko urria gehitzen zaizkio (Emakunde, 2014)

Horri aurre egiteko hezkuntzaren aldetik, kirol alternatiboak lantzea aukera bat izan daiteke; izan ere, parte hartze handiagoa eta balio sozialenganako errespetua sustatzeko ohiko ereduetatik ateratzen diren kirolak dira alternatiboak; horretarako batez ere material berria eta arauen egokitzapena erabiltzen dira normalean

(Hernández, 2007). Kirol kooperatiboekin edo inbasio-kirolekin partekatzen dituzte ezaugarriak, horregatik lehiarekin harremana badirudi ere, Requena (2008)-k dioen bezala lehiaren aurretik partekatzea jartzen da, integrazioa eta gozamina bilatuz.

Kirol alternatiboen bidez berdintasun eta errespetua eta minik egin gabe erabakiak hartzearen erantzukizuna bezalako balioak lortzen dira eta generoa, arraza, egoera fisikoa, gaitasunak edo trebetasunak nolakoak diren inporta gabeko parte hartzea sustatzen ditu (Cuadros eta Otálora, 2019).

5. METODOLOGIA

5.1. INKESTAK

Inkesta soziala unibertsoari edo ikerketako arazoak behar duen pertsonen lagin bati planteatzen zaizkien ahozko zein idatzizko galderen bidez informazioa lortzeko metodoa da (Briones, 1996). Beraz, kasu honetan kirolean generoak daukan egoeraren inguruko umeen ikuspuntua aztertu nahi denez, lagina ume talde batek osatuta egon behar da. Inkesta bete zuen ikasle taldea Lekeitioko eskola publikoko 6. mailako 22 umeek osatu zuten.

Inkestak hainbat atal dauzka egiteko, lehendabizi datu pertsonal batzuk jartzea eskatuko zaie, anonimoa den arren, herria, adina eta bereziki zein generorekin identifikatzen diren galdetuko zaie (0. inkesta). Horren atzetik, inkesta bitan banatzen dela ikus daiteke, alde batetik irudi bidezko erantzunak jasoko baitira eta bestetik idatzizkoak. Beraz, hasteko sei kirol zehatzetan diharduten kirolariak marrazteko eskatuko zaie, boleibola, errugbia, boxeoa, futbola, gimnasia eta igeriketa; baita kirolari bakoitzari azpian bere izena jartzeko ere (1. inkesta). Amaitzeko, idatzizko galdera sorta bat egingo zaie. Galderak labur erantzutekoak izango dira umeek daukaten iritzia zein den jakiteko baita. Galdera sorta horretan beraiek praktikatzen duten edo praktikatzea gustatuko litzaieken kirolen inguruan galdetzen da, baita gaur egun generoak kirolean daukan egoeraz ere (2. inkesta).

A. IRUDIZKO INKESTA

Arestian esan bezala inkestaren lehenengo zatiaren erantzunak irudizkoak izango dira, horretarako, Realkiddys (2017) kanaleko “inspirando al futuro sin estereotipos” bideoa hartu da oinarri gisa. Bideo horretan ikasle talde bati hainbat lanbidetan diharduten langile marrazteko eskatzen zaie generoaren inguruan

dauzkaten aurreiritziak zeintzuk diren jakiteko. Erantzunak jasotzean argi ikusten da umeeek lanbide jakin batzuei genero bat esleitzen diotela.

Kasu honetan lanbideetako langileak marraztu beharrean, kirolariak marrazteko eskatuko zaie ikasleei. Aukeratutako kirola, lehenago aipatu bezala, futbola, boleibola, errugbia, boxeoa, gimnasia eta igeriketa izan dira. Marraztutako kirolari bakoitzari izen bat jarri beharko diote azpian, zein generorekin identifikatzen duten marraztutakoa antzeman ahal izateko. Horrela, 6. mailako talde horrek kirol bakoitza edo kirola orokorrean zein generorekin lotzen duten jakin ahal izango da.

B. IDATZIZKO INKESTA

Horren atzetik Martinez et. al. (2011)-ek eginiko inkestatik ideiak hartu dira, generoen aldetik kirolean dauden hainbat gai aztertzen baitute, batez ere generoen arteko presentziaren ezberdintasuna. Ideia horietan oinarrituta idatziz erantzuteko galdetegi bat sortu da gaur egun kirolak hainbat aspektutan daukan egoeraren inguruko umeeek daukaten ikuspuntua zein den ikusteko. Bertan hainbat gairen inguruko erantzun laburreko galdera erantzun beharko dituzte, besteak beste gai nabarmenenak ondokoak dira: egiten duten edo egitea gustatuko litzaieken kirolak, generoren bati esleitzen zaizkion kirolak, komunikabideek eta publizitateak zein modak kirolaren arloan daukaten jarrera ezberdina generoei dagokienez, eta kirolaren egoera orokorra generoen arabera (hastea, mantentzea, bertatik bizitzea...)

Bi inkestetako emaitzek Lehen Hezkuntzako hautatutako taldeak kirolaren arloan generoarekiko daukan ideiak zeintzuk diren emango dituzte. Emaitza horiek bildu eta aztertzerakoan, zeintzuk diren lantzeko premia gehien daukaten gaiak jakingo da. Emaitza horietatik abiatuta, proposamen didaktiko bat diseinatuko da Eusko Jaurlaritzako 236/2015 dekretuan (hemendik aurrera Heziberri 2020) oinarrituta eta AH eta GH harremanetan jarritz.

5.2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

A. TESTUINGURUA

Proposamen didaktikoa aurretik eginiko inkestaren araberakoa da. horregatik proposamen didaktiko hau Lekeitioko eskola publikoko 6. mailako umeekin egiteko modukoa da. Ikas komunitatean oinarritzen den Lekeition aurki dezakegun ikastetxe honek D eredu du, hortaz ikasgai guztiak euskaraz ematen dira, gainontzeko hizkuntzak izan ezik, hots gaztelania eta ingelesa.

Adinaren aukeraketa umeak aurkitzen diren etaparen arabera izan da. Izan ere, Triglia (2019)-ri jarraik 6. mailako umeak Piageten garapen kognitiboaren teoriari jarraik, bi etaparen artean aurki ditzakegu, 3. eta 4. etapen artean hain zuzen ere. Alde batetik operazio zehatzen etaparen amaieran daude, hau da, ondorioztapen logikoak egiteko gaitasuna daukate, betiere premisa konkretuetatik habiatuta. Bestalde operazio formalen etaparen sarreran daude, beraz abstraktuak diren ondorioztapenak egiteko aukera izango dute arrazoi hipotetiko deduktiboa erabiliz. Azken ideia horregatik eta egozentrismoa alde batera uzteko fasean sartzen daudelako aukeratu da adin hori.

B. KONPETENTZIAK

Aurreko ataletan ikusi dugu jada ikasleek zein iritzi daukaten kirolaren eta generoaren inguruan. Ideia batzuk era inplizituan eman dituzte, egin dituzten marrazkien bidez.; beste batzuk ordea, erantzun zuzenen bidez eskuratu dira. Kontuan izanik lantzea behar duten ideia horiek zeintzuk diren, diseinatuko den proposamen didaktikorako hurbilketa curricularra egingo da.

Oinarrizko hezkuntzako curriculumean, Heziberri 2020-n, bi motatako konpetentziak bereizten dira eta honela definitzen ditu:

- **Oinarrizko zehar-konpetentziak edo orokorrak:** bizitzako esparru eta egoera guztietan –esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan– arazo egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, bai diziplina arlo guztietako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Arlo edo ikasgai guztietan orotara egindako lanaren bidez sustatu eta indartu behar dira zehar-konpetentziak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan integratu edo barneratuz eskuratzen eta erabiltzen dira.
- **Diziplina barneko/arteko oinarrizko konpetentziak edo konpetentzia espezifikokoak:** bizitzako esparru eta egoeretan –esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan– arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, eta, haietan, diziplina-arloren bateko berariazko baliabideak erabiltzen dira. Diziplina barneko konpetentziek diziplina-matrize bat dute oinarri, eta arloen berezko arazo-egoeren bitartez eskuratzen dira; halere, badute transferentzia-gaitasunik eta funtzio anitzekoak dira, diziplina-arlo batekin edo batzuekin lotutako arazo-egoerak konpontzeko baliabideak baitaitezke.

Hori kontuan izanik proposamen honetan oinarritzko zehar kompetentzia guztiak landuko dira: hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia (ikasleek beraien ideiak plazaratzerakoan), ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia (hainbat irudiren inguruko hausnarketak egiterakoan), elkarbizitzarako kompetentzia (besteen ideiak entzun eta errespetatzerakoan), ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia (aurkitutako arazoei soluzio bat bilatzerakoan) eta norbera izaten ikasteko kompetentzia (jarrera kritikoaz jokatzekoan). Bestalde kompetentzia espezifikoei dagokienez arterako kompetentzia eta kompetentzia motorra landuko dira, metodologian (hurrengo atalean) azalduko den bezala ikasgai biak harremanean jarriko baitira.

AHri dagokionez, arterako kompetentziarako 4. multzoan "*Erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea*"-n (Heziberri 2020) jarriko da fokua, lan honen gaiarekin zerikusia duten hainbat atal aurki baititzakegu:

- Publizitatean, interneten, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideen bestelako produktuetan erabiltzen diren irudien azterketa formala egitea eta horiekiko jarrera kritikoa izatea.
- Arteari eta kultura bisualari buruzko albisteak irakurtzea eta eztabaidatzea.

GHri dagokionez, ostera, Heziberri 2020-ko kompetentzia motorreko 3. multzoan, "*Gorputz-adierazpena eta komunikazioa*"-n zentratuko naiz:

- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak.
- Generoen desberdintasunen arteko estereotipoek, gorputzaren eta mugimenduen adierazpen-ahalmenen murrizketan duten eragina ikertzea eta horiez jabetzea.

Baina GHko 5. Eduki multzoari ere erreparatuko diogu "*Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza*".

- Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea.
- Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, preferentziak eta aurreiritziak alde batera utzita.

C. HELBURUAK

Heziberri 2020-ri jarraituz hainbat helburu planteatuko dira beranduago azalduko den proposamen didaktikoaren jomuga gisa. Kasu honetan ere AH eta GHko helburuak bereizi beharra dago, beraz jarraian zerrendatuko dira ikasgai bakoitzarentzat aukeratutako helburuak:

- Soinu eta irudietatik abiatuta sortutako ekoizpenek ingurune fisiko eta sozialarekin zer-nolako loturak dituzten azaltzea eta kritikoki aztertzea, ekoizpenok gizon-emakumeon bizitzan zer-nolako eragina duten ulertzeko. (Arte hezkuntza)
- Jarduera fisikoetan parte hartzea, besteekin batera talde-harremanak sustatzen dituzten proiektuak garatuz, eta aisia-kultura aberasgarri baten oinarriak eraikiz. (Gorputz hezkuntza)

Aukeratutako helburu horiek bete diren edo ez ziurtatzeko hainbat ebaluazio irizpide are aukeratu dira Heziberri 2020-n, hots:

- Arterako konpetentzian: Ikuspegi kritikoz ulertzea artelanen ekoizpenean zer-nolako garrantzi eta eragin itzela duten faktore sozialek (botere- eta genero-harremanek, ideologiek...).
- Konpetentzia motorrean: Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak, plastikoak edo hitzezkoak abiapuntutzat hartuta.

D. METODOLOGIA

Aurreko ataletan azaldu bezala eginiko inkestatik abiatuta proposamen didaktiko bat diseinatuko da. Proposamen hori AH eta GH ikasgaietan lantzeko zereginez osatuta egongo da. Nahiz eta ikasgai biek parte hartu, ez da bietan aldi berean landuko, prozesu lineal bat izango baita.

AHrekin hasiko da proposamena; izan ere, inkestan detektatutako arazo gehienak ikus kulturarekin lura zuzena duten arazo sozialak direla esan daiteke. Kirolarekin lotura izan arren, genero bereizketan aurki ditzakegun errepresentazioen bidezko arazoak baitira eta kirola arazo horiek plazaratzen diren eremu huts bihurtzen da. Horregatik aukeratu da AH abiapuntu gisa eta GH ondorio bezala.

Proposamen didaktikoko lehenengo saioak jarrera kritikoa hartzeko helburuarekin daude lotuta, hainbat irudi aztertuko baitira. Irudi horiek inkestan azaldutako

generoaren inguruko arazoak lantzeko erabiliko dira, saio bakoitzean gai bat. Saio horiek bukatzerakoan beste saio bat erabiliko da guztia erreparatzeko eta ideiak barneratzeko. Horretarako ideia zaparrada bat egin eta, kontzeptuak hainbat taldetan sailkatuko dira, gero talde bakoitzeko ideiekin antzerki bat egiteko eskatuko baitzaie.

Antzerki hori AHtik GHra pasatzeko trantsizioa izango da, hau da, gorputz adierazpenaren bidez hurrengo saioan sortutako antzerkiak taldeka aurrera eraman beharko dituzte.

Antzerkiak bukatu ostean ikasleei kirol alternatiboak zer diren azalduko zaie. Hau da, marko teorikoan azaldu den bezala, parte hartzea eta balio sozialekiko errespetua bilatzen duten kirolak dira. Horretarako material berria erabiltzeaz gain arauak egokitzen dira. Gainera integrazioa eta gozamina dute helburu, generoa, arraza, egoera fisikoa, gaitasunak edo trebetasunak nolakoak diren ez baitu inporta, beraz berdintasuna eta errespetua lantzen dira.

Azken honek zerbait arraroa ematen badu ere, adibide batekin errazago ulertzen da: futbola lantzen bada ikasle guztiak ez dira maila berean hasten, batzuk aurretiaz praktikatu izan dutelako (normalean mutilak), horregatik praktikatzen ez dutenak (normalean neskek) ez dute trebeziak lortuta dituztenekin jolastu nahi izaten, haien aldean okerrago moldatzen direla ikusten baitute, motibazio oso txikia dutelarik. Bestalde ezagutzen ez duten material berridun eta hainbat kirol elementu ezberdinak nahastutako dituen kirol batekin denak maila berean hasten dira eta hura ezagutzeko motibazioa izaten dute.

Kirol alternatiboen nondik norakoa azaldu ostean kirol alternatibo baten arautegia emango zaie hurrengo egunerako irakurri eta ulertuta ekartzeko, kirol horretan arituko baitira. Kirola berria izango denez elementuak gutxinaka sartzen joango gara kirol horren hastapena bermatzeko.

E. DISEINUA: KIROLARI BEGIRADA MOREA

Atal honetan diseinatutako proposamen didaktikoa azalduko da saioz saio. Saio bakoitza eranskinetako izen bereko taula bakoitzarekin lotuta egongo da. Aurretik esan bezala AHko saioekin emango diogu sarrera gaiari, horietatik 3k estruktura antzekoa izango dute:

1. SAIOA: *Prensa kiroleko sexismoa.*

Gaiari hasiera emateko ikasleak talde txikietan (4-5) banatuko dira eta talde bakoitzari kirolarien hainbat irudi bat emango zaio. Irudiek ondoan prentsak jarritako titularrak egongo dira. Titular horiek kirolarien lorpenak goraiatu beharrean beste gai batzuetan zentratzen dira sexismoa bultzatuz, horietako adibide batzuk ondokoak dira:



1. Irudia: Kirolari lotutako prentsako matxismoaren adibide batzuk. [60 ejemplos de machismo y sexismo en prensa y publicidad] (2019) <http://bit.ly/3tvCQEN>

Talde bakoitzak tokatutako irudiaren inguruan hausnartu beharko du prentsak kirolean izaten duen jarrera sexistaz jabetzeko asmoarekin. Lehendabizi arazoa identifikatu eta gero nola aldatuko luketen adieraziz titular berriak sortuko dute. Hori egin ostean, talde bakoitzak gainontzekoei azaldu beharko die zer identifikatu duten eta nola aldatuko lukeen.

Denbora izanez gero Always Latinoamerika (2017) youtubeko kanalak “¿Qué significa hacer algo #ComoNiña? | Always” bideoa ikusiko da. Bertan kirolarekin lotura zuzena duen eta sexista den jarrera bat adierazten baita. “Nesken moduan korrika egitea” esaldiak atzean daukan irakurketaren ingurukoa da eta ondorio gisa esaldi laburrek guztiz esanahi sexistak izan ditzaketela da, kasu honetan matxista. Gainera marko teorikoan azaldu bezala diskriminazioa ekar dezake.

2. SAIOA. Nola jantzi kirola egiteko?

Aurreko saioaren ostean kiroleko sexismoarekin guztiz lotutako gai bati ekingo zaio: janzkera. Kirola eta janzkera hainbat modutara lotu daitezke: profesionalen uniformeak (batzuetan arau batzuen barnean daudenak) edo edozein pertsonak kirola egiteko aurki dezakeen arropa mota.

Talde osoan hainbat irudi aztertuko dira. Hautatako irudiak kirolean janzkerak duen pisuaren inguruan hausnartzekoak izango dira. Irudi horiek bere garaian polemikak sortu zituzten, kirol batzuek dituzten ulergaitzak diren arauen ondorioz edo gizartek barneratuta daukan kirolaren irudia aldatzeagatik. Honetarako erabiliko diren irudien adibide batzuk daude 2. irudian:



2. Irudia: Kiroleko janzkeran polemikak. Noticias de Gipuzkoa (2020) [Polémica en Euskadi por la norma sobre bikini en el balonmano playa femenino] <https://bit.ly/3jsZQPv>; Pulzo (2018) [¿Sexista? Advertencia a Cornet por acomodarse camisa, y no a Djokovic por quitársela] <http://bit.ly/2YSzM7k>; BBC news (2016) [La foto de dos jugadoras de voleibol playa que se convirtió en una de las imágenes de las Olimpiadas de Río] <http://bbc.in/36PeEDm>

- Hondartza eskubaloian ezkerreko uniformearen estiloa derrigortu zuten, bestelakoak zeuzkatenak zigortuak izan ziren (23 taldetik 22 zigortu).
- Tenisean Alize Cornet jokalaria santziora jarri zioten kamiseta alderantziz zuela konturatzean, hura kendu eta ondo ipintzeagatik, baina esaterako Novak Djokovic atsedendaldi osoan egon zen kamisetarik gabe.
- Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan hondartza boleibolean polemika egon zen Egiptoko boleibol jokalaria batek burua estaltzearen.

Irudiak banan-banan landuko dira eta jarrera kritikoa pizteko asmoarekin eztabaida eskatuko zaie eta ideia nagusiak arbelean apuntatuko dira. Amaieran ondorioak nagusiak aterako dira eta polemikak nola amaituko lituzketen adostuko dute, gero kartel bat egiteko janzkeraren inguruan izan beharreko jarreraren esaldiekin.

3. SAIOA. Kirolariak ala jainkoak?

Hurrengo saion gizartean kirolak izan dezakeen eraginaz jardungo da. hain zuzen ere hainbat kirolek gizartean eta jokamoduan guztiz sartuta daude, horren adibide nabarmenena futbola da. Futbolari batzuen jarrerak imitatzera iritsi gara, hau da eredu bezala hartzen dira, batzuetan jarrera horiek ondo dauden ala ez epaitu gabe.

Horregatik talde osoari 3. irudia erakutsiko zaio, bertan Paula Dapena jokalaria ikus daiteke lurrean eserita atzera begira ez baitzeturren bat Maradonari omenaldia egitearekin. Horregatik bira eman eta lurrean eseri zen.



3.Irudia. Pontevedrako futbol taldearen omenaldia Maradonari. El Confidencial (2020) [Paula Dapena, la jugadora que no homenajeó a Maradona: "No puedo defender esto"] <http://bit.ly/2Ogm3W5>

Egoera azaldu eta ikasleak binaka jarriko dira ordenagailuetan ikertu dezaten irudian eserita agertzen den neskak jasotako goraipamenen eta, batez ere, kritiken arrazoien zergatia. Horren ostean bikote bakoitzak ondorioak atera partekatu egin beharko ditu.

Amaitzeko youtubeko eitb (2020) kanalak igotako *Izaro: "Zuen usteen eta legeen kontra, gora borroka feminista!"* bideoa jarriko zaie. Bideo horretan Gaztea sarietan Izaro abeslariak saria lortu ostean eginiko diskurtsoa ikus daiteke. Gai berarekin lotuta dagoenez, ikasleei Izarorekin bat datozen edo ez hausnartu beharko dute, baita salatutako jarrerak gaur egun askotan errepikatzen diren ere.

Hiru saio horien atzetik beste saio bat erabiliko da AHko saioan eta horrekin lotuko da hurrengo GHko saioa. Saio hauek bi ikasgaien arteko trantsiziorako izango diren arren, aurretik landutako ideiak barneratu eta finkatzeko baliogarriak izango dira.

4. SAIOA. Antzerki feministak

Aurreko saioetan hainbat gai landu dira eta horiek finkatzeko errepasso bat egin beharra dago. Horretarako birpasapen huts bat egin beharrean motibagarria izan daitekeen ondorengo ekintza proposatuko da:

Idea zaparrada azkar baten bitartez aurreko saioetan landutako guztia arbelean apuntatuko du irakasleak. Irakasleak lau taldetan banatuko dira eta talde bakoitzari ideia multzo bat esleituko zaio, gero ideia horiekin antzerki bat sortu beharko baitute. Antzerkia taldeko partaideek aurrera eramateko modukoa izan behar da, beraz kontuan izan beharko dute pertsonaia kopurua. Antzerkiak arazo bat landu beharko du eta horri soluzioa eman beharko zaio.

Saio amaieran AHko gai honen inguruko azken klasea izan dela jakinaraziko zaie ikasleei. Hala ere, hurrengo GHko saioan sortutako antzerkiak aurrera eraman beharko dituztela adieraziko die irakasleak, beraz mozorro edo objektu bereziren bat beharko badute horiek eramateko aukera izango dutela ohartaraziko zaie.

5. SAIOA. Kirolean denok berdin!

AHko azken saioan talde bakoitzak sortutako antzerkiak eramango dituzte GHko saiora. Antzerkiak aurrera eramango dituztela azalduko zaie ikasleei. 40 minututan entseatzeko aukera izango dute antzerkia aurrera eraman arte. Antzerki guztiak 20 minututan antzeztuko dira eta bakoitzak zerbait salatuko du. Amaieran beraien mezua zein izan den azaldu beharko diete gainontzeko kideei.

Klasearen ostean 10 minututan irakasleak kirol alternatiboak zer diren azalduko du hurrengo saioetara begira, horietako bat lantzeari ekingo baitzaio, hots *pinfubote-ari*. Azalpenaren ostean arauak emango zaizkie hurrengo egunerako zertan arituko diren ideia bat izateko.

Antzerkia saioen arteko trantsizioa izanik, hurrengo GHko saioetan pinfubotea lantzeari ekingo da, kirol alternatiboek, parte hartzea bilatzen dutelako material berria eta arauen egokitzapenaren bitartez. Berdintasuna, errespetua eta erabakiak hartzeko balioak lortzea dute helburu.

6. SAIOA. Pinfubote ezagutzen

Ikasleak indibidualki egongo dira zelaian sakabanatuta. Bakoitzak, nahi duen gorputz atala erabiliz baloiarekin tokeak egiten ahaleginduko da, gorputzaren atal bat baino gehiago erabili ahal izango dute (hankak, belaunak, eskuak, burua...). Arau bakarria ezingo dutela hartu da. Hasieran 10 toke egiten saiatuko dira eta lortu duenek 20 toke egiten saiatuko dira erronka gisa. (15 minutu)

Bikoteka jarriko dira, haien artean paseak egiteko, baina zegoen araua mantendu egingo da: ezingo dute baloia hartu. Baloiak boteak eman ditzake bote kopurua kontuan izan gabe. Lehenengo eskuekin bakarrik arituko dira paseak egiten. Ondoren, aldaerak sartuko dira: Eskuekin eta buruarekin paseak, oinekin (bakarrik), eta nahi duten gorputz-atalarekin, baina aurrekoaren gorputz atala ezingo dute errepikatu (aurrekoak eskuarekin eman badio besteak ezingo du eskuarekin berriro eman) Horrela, beti gorputz atal berdinarekin ematea ekidingo da. (20 minutu)

Ondoren, hirukoteka jarriko dira eta rolak banatuko dituzte: batek eskuarekin emango dio, beste batek buruarekin eta hirugarren ikasleak, oinarekin. Gero rolak aldatzen joango dira. Azkenik, 8 ikaskideko taldeak egingo dira eta zirkulu batean jarriko dira. Dinamika berdinarekin jarraituko dute, baloia pasatu beharko dute nahi duten gorputz atalarekin. (20 minutu)

Denak zirkuluan eseriko dira eta talde handian saioaren inguruan hausnartuko dute, gehienbat nola sentitu diren galdetuz. (10 minutu)

7. SAIOA. Baloia menperatzen

Lehenengo jolasean bi talde arituko dira bata bestaren aurka, zelai bat bitan banatuko da. Talde bakoitzak bere eremuan baloi kopuru bera izango du. Ikasleek beste taldearen zelaira baloiak pasa beharko dituzte denbora tarte jakin batean. Helburua bakoitzaren zelaian ahalik eta baloi gutxien egotea da. Baloiak beste zelaira pasatzeko, gorputzaren edozein atal erabili daiteke. Behin irakasleak txistua jota, ikasleak baloiak beste aldera pasatzeari utziko diote eta horiek zenbatuko dira ea zenbat baloi dauden talde bakoitzaren zelaian jakiteko.

Hurrengo jardueran klasea 6 pertsonetako taldeetan banatuko da. Jolasaren helburua talde bakoitzak, borobilean jarrita, baloia lurrean bote bakarria emanaz, talde bereko kideen artean 10 aldiz pasatzea da. Baloiak bi bote ala gehiago

egitekotan, berriro hasi beharko lirateke hasieratik. Talde batek lortzekotan, proposatuko saiek hurrengo saiakeran 20 bote ematera heltzea izango dute jomugatzat,. Baloia ezingo da hartu eta kolpeen bidez bakarrik mugitu beharko da. Beste aldaera batzuk: serieak jarri ahal daitezke, adibidez, lehenengo pasean bote batekin eta bigarren pasean bi boterekin...

Jarraian “A, E, I, O, U” jolasari ekingo zaio, klasea bitan zatituko da. Klase erdi bakoitzak baloi bat izango du eta zelaiaren erdi batean kokatuko da. Ereku bakoitzean zehar kono batzuk kokatuko dira eta ikasleek lurra ukitu gabe baloia beraien artean pasatzen saiatu behar dira pase bat egiten duten bitartean bokal baten izena esanez. “U”-ra heltzean kono baten kontra jaurti beharko dute. Aurreko jardueran bezala, baloia ezingo da hartu eta kolpeen bidez mugitu beharko da. Errazegi egiten badute, pixka bat zailtzeko, aldaera bat sartuko litzateke. Aldaketa, bokal bakoitzari gorputz atal bat egokitzea izango da; hortaz, letra jakin bat tokatzen zaionak, letra horri dagokion gorputz atalarekin eman beharko dio.

Amaitzeko eta lasaitzera begira, jarduera honetan, ikasleak binaka jarriko dira eta, baloiak erabilia, bere bikoteari masajeak emango dizkiote. Denbora bat pasa eta gero, rola trukatu dira.

8. SAIOA. Sarearekin lehen kontaktua

Hasteko suediar bankuekin hainbat zelai egingo dira, zelai bakoitzean lau banku jarriko dira gurutze forman (zelaia lau zatitan banatuz). Ikasleek bikoteak osatuko dituzte eta bikote bakoitza zelaiaren zati (laurden) batean jarriko da. Zelai bakoitzean baloi bat egongo da eta helburua norbere zatian baloiak bi bote jarraian ez egitea izango da. Horretarako partaideen artean baloia pasatzen joan behar dira. Baloiari eskuekin bakarrik eman ahal zaio, baina ezin izango dute hartu. Norbere zelai bote bat eman dezake gero beste zelai batera pasatzeko. Laurden batean bi bote eman gero, laurden horretakoa ez den baloia ukitu duen azken bikoteak puntu bat eskuratuko du. Haien artean paseak egin ahal dituzte, baina pertsona berdinak ezin dio bi aldiz jarraian eman.

Hurrengo jardueran 6 pertsonako taldeak egingo dira. Talde guztiak kiroldegiaren alde batean jarriko dira eta talde bakoitzak uztai bat izango du beraien parean, baina kiroldegiaren beste muturrean. Helburua taldekideen artean paseak eginez baloi bat uztai sartzeko da. Horretarako baloia ezin da heldu eta eskuak bakarrik erabil ditzakete. Aurreko jardueran bezala kide bakoitzaren artean bote bakarra eman daiteke, bestela airean eman beharko zaio. Hainbat aldaera sartu daitezke:

uztailarekiko distantzia aldatzea, talde txikiagoak egitea, gorputzeko atal bat zehaztea baloiarekin emateko, puntuazio desberdina duten kolore eta tamaina desberdinetako uztaillak jartzea edo bidean oztopoak jartzea haiek saihestu ditzaten.

Aurreko jolaseko taldeak mantenduko dira eta *pinfubotera* hurbiltzen den dinamika bat proposatuko da. Dinamika antzekoa izango da; izan ere, eskuekin bakarrik eman ahalko zaio eta toke bakoitzaren artean gehienez bote bat eman ahal izango da, baina oraingo honetan beste elementu bat sartuko da: sarea. Hori kontuan izanik sareak zeharkatzen dituen bi zelai egongo dira. Talde bakoitza sarearen alde batean jarriko da. Helburua taldekideek hiru aldiz ukituta beste aldera pasatzea izango da, gero besteek bueltarazteko. Ez da aurkaritzarik egongo, helburua baloia ez erortzea izango baita. Aldaera gisa baloia beste aldera pasa aurretik taldekide guztiek ukitu behar izatea proposatu daiteke.

9. SAIOA. Baloia emateko modu ezberdinak

Sakea, tokeak eta erremateak lantzeko Uztai bat jarriko da sarearen alde batean, sakea egiten duenak handik egin beharko baitu sakea. Beste aldean beste hiru ikasle egongo dira. Batek, baloia bere aldera datorrenean heldu edo, ahal badu, kolpatu egingo du, bere zelaiaren dagoen beste kide bati pasatzeko; honek hirugarren kidearengana zuzenduta gauza bera egin beharko du eta azkenak zelaiaren beste aldera botako du. Batek baloia eskuekin joko du, beste batek buruarekin eta azkenak beste aldera pasatzeko nahi duen gorputz atala erabiliko du erremate baten bidez. Beste aldean, beste ikasle bat ikaslea egongo da baloia hartzeko asmoarekin. Rolak aldatzen joango dira.

Horren atzetik lehengo partiduak jolasten hasiko dira, baina burua eta eskuak erabiliz bakarrik. Sakea uztaitik egin beharko da eta gehienez 3 ukitu eta ukitu bakoitzaren tartean bote bakarra eman ahalko da, *pinfuboteko* partidu bat izango balitz bezala, baina hankak erabili gabe eta puntuazioa zenbatu gabe. Helburua haiek ahal edota nahi duten moduan baloia kolpatzea da. Hankak oraindik ez dira erabiltzen; izan ere, normalean jolastorduetan gehien nabarmentzen den kirola futbola da, beraz baloia emateko beste modu edo teknika batzuk aurkitu behar dituzte.

Hankak erabiltzen hasteko, 4 partaidek osatutako taldeetan tenis partidu bat jolastuko dute baina hankak erabiliz, sarearekin. *Pinfubotearen* arauak erabiliko

dira, gehienez baloiak 3 bote eman ditzake, betiere ez badira jarraian 2 ematen, eta talde bakoitzak 3 toke ditu gehienez. Ez dira puntuak zenbatuko eta sarea librea izango da, hau da, jokia eteten denean baloiak ihes egin duelako edo ez duelako sarea pasatu, edonork aterako du.

10. SAIOA. Pinfubote partiduak

Norbere eremua errespetatzen hasteko, zelaia errespetatzen erakutsiko zaizkie: aurreko eta atzeko zonak zeintzuk diren, erdiko borobiletik atera behar dela... 6ko taldeak osatuko ditugunez, bakoitzak bere eremua errespetatzen jakin dezan zelaia 6 zatitan banatuko da. Talde bereko kideek, kolore desberdinetako petoak izango dituzte, horren arabera irakasleak irizpideak esango baititu, esaterako: peto urdindunek eskuarekin bakarrik eman dakiok, peto gorridunek buruarekin, peto horidunek oinekin... Rolak aldatzen joango dira eta talde batekin aurkaritzan egon arren, ez dute puntuaziorik izango oraindik.

Horren atzetik, hainbeste saioen ostean *Pinfubote* partiduak egiten hasiko dira aurreko jolasen bidez ikasitako guztia martxan jartzeko. Beraz, zelaian aurreko zona eta atzeko zona bereiziko dira, hau da, bakoitzak bere eremua izan beharrean zona bereko kideekin komunikatzeko beharra izango dute. Bi zelai daudenez aldi berean bi partidu egongo dira eta 6 vs 6 egiturakoak izango dira. Talde guztiekin jarduteko, zelai eta aurkari aldaketak egingo dira.

Saioa amaitzeaz gain, gaiari ere bukaera emango zaio, horregatik azken egunetan landutako guztiaren hausnarketa sakona egingo da.

Azken hausnarketan ikasleak aurreko saio guztien arteko loturaz konturatzea bilatzen da. Hasieran AHn landutako kontzeptuak berreskuratu (kirolean dauden genero estereotipoak, sexualizazioa, sexismoa...) eta beraien kirol praktikarekin lotu nahi dira. Kirol alternatiboek berdintasuna eta errespetua bezalako balioak zabaltzea helburu izanik, ohiko kirolak lantzearen aldean hezkidetzari dagokionez ezberdintasunik ikusten duten ere jakin nahi da. Ondorio handiena kirola generorik gabeko jardura bat dela izango litzateke, eta kontrako ideiak izatea gizarteak sortutakoak direla.


6. EMAITZAK

Inkesta pasa zaien umeen taldea Lekeitioko eskola publikoko 6. mailako umeak izanik 22 parte hartzaile egon dira. Horietatik 8 neska moduan eta 14 mutil moduan identifikatzen dira 0. inkestaren eman dituzten datu pertsonalen arabera.

6.1. IRUDIZKO INKESTARENAK

1. inkestari dagokion irudizko inkestan batez ere aurretik aukeratutako kirolak generoren batekin lotzen dituzten edo ez ikus daiteke. Gainera kontuan izan beharra dago, hain galdera zehatzik ez duten mota honetako inkesten bidez egiazkoagoak diren ideiak lor daitezkeela; izan ere, galdera zehatzen bidez automatikoki plazaratzen dira askotan landutako gaien erantzunak, baina modu honetara benetan barruan dauden ideiak ateratzen dira.

Inkesta honetan kirolari batzuk marraztu dituzte eta gero haiei izenak jarriko dizkiote. Hortik ateratako datuak hurrengo grafikoan ikus daitezke. Alde batetik, ezkerrekoan kirol bakoitzeko zenbat neska eta zenbat mutil marraztu dituzten; bestalde, eskuinekoan neska zein mutilek guztira genero bakoitzeko zenbat kirolari marraztu dituzten.




1. 1. Grafikoa. Genero ezberdintasunak kirolean. Iturri propioa.

Nahi izanez gero hurrengo taulan datu zehatzagoak aurki daitezke:

	Neskek		Mutilek		Guztira	
	Mutilek	Neskak	Mutilek	Neskak	Mutilek	Neskak
Boleibola	3	5	10	4	13	9
Errugbia	6	2	12	2	18	4
Boxeoa	5	3	13	1	18	4
Futbola	5	3	10	4	15	7
Gimnasia	4	4	8	6	12	10
Igeriketa	5	3	9	5	14	8
Guztira	28	20	62	22	90	42

1. Taula. Genero bakoitzak daukan presentzia kirolean. Iturri propioa.

Taulan zein grafikoetan ikusi daitekeen bezala guztira marraztuak izan diren kirolarietatik 90 izan dira mutilak eta 42 (erdia ere ez) neskak. Horrekin kirola orokorrean genero maskulinoarekin lotzen dutela ondorioztatu dezakegu. Aipatzekoa da ikasle batzuk kirol guztietan edo ia guztietan mutilak marraztu dituztela eta horren adibide da 4. irudia.



4. Irudia. Ikasleek egindako marrazki batzuk. Iturri propioa.

Egia da neskek egin dituzten marrazkien artean nahiko parekotasun aurki genezakeela. Hala ere, nahiz eta kopuru antzekoa izan neskak (20) baino mutil (28) gehiago marraztu dituzte. Mutilek eginiko marrazkietan ordea, nabaria da desberdintasuna marraztutako nesken (22) aldean mutilek (62) kopurua ia hirukoiztu egiten dute.

Maskulinitzat hartzen diren kirolean nabaria da bereizketa. Izan ere oldarkoragoak edo arriskutsuagoak diren kirolean (boxeoa edo errugbia) 18 marraztutako mutil eta 4 neska aurki ditzakegu, laukoitza baino gehiago. Futbolari dagokionez ere, gizarteak

guztiz maskulinizatuta daukala ukaezina da eta umeek ere hori antzematen dute, 15 mutil eta 7 neska marraztu baitituzte (bikoitza baino gehiago).

Beste alde batetik gizarteak neutroagotzat edo femeninoagotzat dauzkan kirolean ere marraztutako mutilen kopurua handiagoa da neskena baino. Hain zuzen ere boleibola, gimnasia edo igeriketa bezalako kirolean nesken presentzia handiagoa espero bazen ere datu hauek kirolaren mundua gizonetara bideratuta dagoela ondoriozta genezake.

6.2. IDATZIKO INKESTARENAK

Idatziko inkestari dagokionez, ikasleek galdera sorta bati erantzun behar zioten (2. inkesta). Galdetegi horretako atal bat praktikatzen dituzten eta gustatuko zitzaizkien kirolen ingurukoa da. Guztiek zerbait egiten dutela aitortu dute, mutiletan futbola, txirrindularitza, atletismoa eta korrika egitea nabarmendu dira, baina motorrak, frontenisa eta ehiza ere aipatu dira. Nesketan, aldiz, *balleta*, arrauna, txirrindularitza eta zaldi lasterketa aipatu dira. Horrez gain, igeriketa genero bietan nabarmendu da.

Desioei dagokienez, mutilek karatea, boxeoa, beisbola, eskia edo piragua egin nahi dute eta neskek boleibola, dantza, pala, pinpona edo eskalada egin nahi dituzte. Hori horrela izanik, nabaria da mutilek oldarkorragoak diren eta indarrarekin zerikusia duten kirolak aukeratzen jarraitzen dutela eta neskek gehiago erritmoarekin edo koordinazioarekin lotzen ditugun kirolak egin nahi dituztela.

Galdetegiaren beste atalak kirolean genero bakoitzak daukan egoeraren ingurukoak dira: kirola generoren bati zuzenduta dagoen, generoren batek gaitasun gehiago dituen, kirolari ezagunenak zein generotakoak diren, komunikabideetan eta publizitatean kirolariak daukaten presentzia nolakoa den eta kirolek bizitzeko aukera berdina dagoen generoen arabera galdetzen zaie.

Ikasle guztiak ados daude kirol bat ere ez dagokiola genero bati, batzuek horrela adierazi dute “bakoitzak nahi duen kirola praktikatu dezake” bezalako baieztapenekin. Gaitasunen aldetik ere maila berean daudela esaten dute, baina “kirol batzuk zoritxarrez genero zehatz batzuei zuzenduta daude”-la diote, esaterako futbola, boxeoa edo errugbia gizonezkoiei eta baleta, dantza, gimnasia erritmikoa edo igeriketa neskei. Genero ez binarioaren inguruan ere galdetu zaie, baina “ez dakit” edo tartea hutsik jarri dute.

Kirolari famatuaren artean ospetsuenak gizonezkoak direla ados daude guztiak. Horren zergatia galdetzerakoan “telebistan gehiago agertzen direlako” edo “gizonezkoiei

garrantzia gehiago ematen zaielako” bezalako erantzunak jaso dira. Horri lotuta gizonezkoei kirolarien lorpenak era ez direla modu berean adierazten dute ia guztiek.

Publizitate eta modako katalogoetan kirolariak agertzen diren ala ez galdetzerakoan erantzun anitzak jaso dira. 8 ikaslek esan dute gizonezkoen kasuan agertzen direla eta emakumeen kasuan ezetz, 3 ikaslek kontrako postura daukate, emakumeak baietz eta gizonak ezetz. Beste 8k emakume zein gizonak agertzen direla diote eta beste 3k ez dute kirolaririk identifikatu katalogoetan. Beraz, 16 ikaslek diote gizonezkoak agertzen direla eta 11k emakumeak agertzen direla.

Kirolarien egoeraz galdetzean erdiek kirolean hasteko zailtasun berak daudela denentzat diote eta beste erdiek emakumezkoek zailago dutela baieztatzen dute. Antzeko erantzunak izan dituzte kirolean mantentzearekin eta hortik bizitzeko aukerekin galdetu zaienean.

6.3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOARENAK

Proposamen didaktikoa ezin izan da aurrera eraman covid-19aren egoerak lagundu ez duelako. Hala ere, matxismoa bezalako sexismo motak eta bestelako gizarteko gaitzei aurre egiteko unitate didaktikoak martxan jartzea beharrezkoa da, oraindik ere hainbat eremutan berdintasunezkoak eta errespetuzkoak ez diren jarrerak ikusten baitira. Kirolaren esparruan jarrera horiek nabarmenak dira eta hezkuntzarekin lotutako zenbait gunetan nabari daitezke. Horren adibide dira, jolastokiak, GHko saioak edo eskola kirola. Aurreko ataletan azaldu den bezala inkestak bete dituzten ikasleek ere aitortu dituzte jarrera horiekin bat datozen ideia batzuk, gaia lantzeko premia egotearen ideia indartuz.

Behar horri erantzuna emateko diseinatu den proposamen didaktikoa martxan jarri ez arren, erreala den abiapuntu bat dauka, hots, inkesta bete duten ikasleak. Beraz, beraien ideietan antzeman diren premiak identifikatu eta horiei aurre egiteko asmoarekin egin denez baliogarria izan daiteke. Guzti hori kontuan izanik, aipatzekoa da sortutako proposamenaren diseinuak emaitzarik ez duela dirudiela, baina proposamena bere osotasunean inkesten emaitza da. Aurrerantzean beste hobetzeko proposamen batzuekin batera, martxan jarri ahal izatea espero da gizarteko zenbait gaitz lehenbailehen sendatu bitartean.

7. ONDORIOAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Aurreko ataletan Lekeitioko eskola publikoko umeei pasatutako inkesten erantzunak aztertu dira, eta hor ikusitako hainbat arazori konponbidea emateko proposamen didaktiko bat diseinatu da. Covid-19aren ondorioz martxan jartzea ez da posible izan, inkestak bete dituzten umeei gauzak argitzeko moduko diseinua da.

Hasieran planteatutako hipotesiei dagokienez, inkestak bete dituzten umeak 1. hipotesitik hurbilago kokatzen direla antzeman daiteke. Umeei kirolarekiko generoaren inguruko estereotipoen inguruan nahiko hausnarketa egin dutela nabari baita, kirola genero bati lotuta ez dagoela uste dutelako, eta hezkidetzari laguntzen ez dioten elementuak identifikatzeaz gain, horiei aurre egiteko jarrera erakusten dutelako orokorrean. Hala ere, elementu horien existentziak gaitzak dirauela adierazten du, eta horregatik jarraitu behar da gaia lantzen.

Hipotesiez gain, hasieran hainbat helburu adierazi ditut, horietako bat umeei kirolean dauzkaten genero estereotipoen jabetzea eta genero bakoitzari esleitzen zaizkion kirol eta irudi estereotipatuengain inguruan hausnartzea; bestea irakasleek batzuetan lantzea zaila den gai hauei konponbidea emateko moduko proposamen didaktiko bat diseinatzea.

Helburu horiek lortu direla esango nuke, proposamen didaktikoak gai asko biltzen dituelako eta haren sortze prozesuan gai guzti horien inguruan hausnartzeko aukera dagoelako. Alde batetik, eta gauzarik argiena, kirola ez dela matxismotik at geratzen den eremu bat da, hori dela eta askotan begi bistaz ikusgaitzak diren sufrimenduak azaleratzea komeni da, horiek eraldatzera bidean.

Sufrimendua dakarren gauza bat komunikabideen eraginaren ondorioz gertatzen da, gizartean matxista den heinean prentsan agertzen diren zenbait titular ere horrelakoak dira. Emakume askok lortutako sariak meritua beste norbaiti emanez edo lorpenengatik ezagutarazi beharrean inoren emaztea izateagatik edo itxura fisikoagatik ezagutaraziz guztiz baliogabetzen dituzte.

Horrekin lotuta, kirolari ospetsuen artean emakumeen aldean dezente gehiago dira gizonezkoak, eta ikasleen %100a dago baieztape horrekin ados; arrazoia zein den ziur ez egon arren, “telebistan gehiago agertzen direlako” edo “gizonezkoen garrantzia gehiago ematen zaielako” bezalako baieztapeak egiten. Arrazoirik falta ez zaien arren marko teorikoan ikus daiteke emakumezkoen kirolean egon diren gora-behera guztiak.

Janzteko exijentziak ere sufrimendua ekar dezake, erosotasuna lehenetsi beharrean, estetikari garrantzia handiagoa ematen baitiote. Modu horretara kirolari izateaz gain modelo papera izatera derrigorrazten dituzte, kasu batzuetan erabat sexualizatuta egon arte. Azken hau gizonkoetan ere gertatzen bada ere, dezente gehiago gertatzen da emakumezkoetan. Gainera kasu horietako askoren arrazoia zenbait kirolek txapelketetan arropa mota bat besterik onartzen ez dutelako da, arautegiak hala baitio; eta hain bidegabea den arautegi horietako batzuk ez dizkiete aukera berak ematen gizonzkoiei eta emakumezkoiei.

Bestalde zenbait kirol oso gizarteratuta daudenez, kirola bera baino gizarateak beretzat hartu duen ekintza bat direla dirudite, beraz gizaratea bera islatzen dute. Adibide argiena gizonzkoen futbola da, hain zuzen ere kirol huts izatetik espektakulu izatera pasatu da. Badirudi gizarateak futbola kontrolatu beharrean futbolak kontrolatzen duela gizaratea.

Matxismoa kiroleko alderdi orokorragoetan ere aurki daiteke, besteak beste kirol zehatzei genero bat esleitzean; izan ere, gizonzkoak gailentzen diren kirolean emakumeen presentzia ia nulua da, eta praktikatzan dutenak gaizki ikusita daude. Prozesu hau alderantziz ere ematen dela kontuan izan behar da zenbait kirolean, hau da, gizonzkoak dira inbisibilizatuak eta diskriminatuak.

Azken ondorio gisa, esan beharra dago hezkuntzaren papera oso garrantzitsua dela gizarateko hainbat arazo konpontzeari begira. Arazo horietako batzuk proposamen didaktikoarekin lantzea espero da. Hala ere, hobetzeko hainbat elementu plazaratzea ezinbestekoa da. Hasteko esan beharra dago ikasle talde jakin baten ideietatik ateratako datuetatik sortu dela diseinatutako proposamena, beraz baliteke beste talde batzuetan landu beharreko gaiak ezberdinak izatea. Horretarako irudien edo kirol alternatiboaren aukeraketa aldatu behar izatea.

Ikasleei diseinua pertsonalizatzeaz gain, irakasleak izan beharreko papera ere zaintzea beharrezkoa da. Kasu honetan bi ikasgai uztartzen dira eta horietako batek espezialista dauka, hortaz bien arteko koordinazioa beharrezkoa da. Horregatik, derrigorrezkoa ez den arren, ondo legoke ahal den saio guztietan irakasle biak presente egotea.

Bestalde interesgarria litzateke herriko beste erakunde edo agente batzuk inplikatzeko hezkuntza prozesuan. Kasu honetan, bereziki, aztergai izan den ikasle taldea ikas-komunitatean oinarrituta dagoelako. Ikastetxea Lekeition dagoenez, bertako kirol zein arte agenteekin kontaktua estutzea legoke; esaterako, Arropaineko arragua arte-

erakundearekin edo herriko kirol taldeekin eta, nola ez, udaletxearekin instalazioren bat beharrezkoa izatekotan.

Amaitzeko lan honen bidez detektatu den, eta beste proposamen didaktiko batzuk diseinatzeko abiapuntu izan daitekeen gai bat dago: genero ez binarioa. Ikasleei oso ezezaguna egiten zaiela ikusi delako.

8. ERREFERENTZIAK

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Allport, G. W. (1971). *La naturaleza del prejuicio*. (4. ed.). Eudeba.

Always Latinoamérica (2014ko uztailak 2a). *¿Qué significa hacer algo #ComoNiña? | Always* [Bideoa]. Youtube. <https://bit.ly/39W6ZFm>

Barberá, E. (1998). *Psicología del género*. Barcelona, España: Ariel.

Barberá, E., & Mayor, L. (1989). Autoconcepto de género y sistema de valores. *Revista de psicología social*, 4 (2), 151-165.

Bermudez, J. A. (2010). Cultura visual. *Nodo: Arquitectura. Ciudad. Medio Ambiente*, 4 (8), 5-30.

Blández, J., Fernández, E. & Sierra, M. A. (2007). Estereotipos de género, actividad física y escuela: La perspectiva del alumnado. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 11 (2).

Blández, J., Fernández, E., eta Sierra, M. Á. (2007). Estereotipos de género, actividad física y escuela: La perspectiva del alumnado. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 11(2).

Briones, G. (2006). *Métodos y técnicas de investigación para las ciencias sociales*. (4. ed.). Trillas.

Carver, P.R., Yunger, J. L. y Perry, D. G. (2003). Gender identity and adjustment in middle childhood. *Sex Roles*, 49 (3), 95-109.

Coll-Planas, G. (2013). Dibujando el género. *Norte de Salud Mental*, 11 (46), 109-110.

Cooper D. (2007). *Ideología y Tribus Urbanas*. LOM.

Cuadros Niño, A. F., & Otálora Peñaloza, B. C. (2019). *Implementación de juegos y deportes alternativos que permitan la inclusión deportiva en niños y niñas entre las edades de siete a doce años de la fundación (FUNDAR), ubicada en la localidad de Suba de la ciudad de Bogotá* (Doctoral dissertation).

- Díaz, P. (2007). Valores y estereotipos femeninos creados en la publicidad gráfica de las marcas de moda de lujo en España. *Anàlisi: quaderns de comunicació i cultura*, (35), 027-45.
- Díaz, P., Muñiz, C. & Quintas, N. (2010). Cuerpos mediáticos versus cuerpos reales. Un estudio de la representación del cuerpo femenino en la publicidad de marcas de moda en España. *Icono 14, Revista de comunicación y tecnologías emergentes*, 8 (3), 244-256.
- Eitb (2020ko abenduaren 4a). Izaro: "Zuen usteen eta legeen kontra, gora borroka feminista!" [Bideoa]. Youtube. <https://bit.ly/3oY9taD>
- EMAKUNDE, (2014) "Aspectos clave a analizar para evaluar el impacto de género", La evaluación del impacto en función del género en deportes, 11.
- Espinosa, A., Calderón-Prada, A., Burga, G. eta Güímac, J. (2007). Estereotipos, prejuicios y exclusión social en un país multiétnico: el caso peruano. *Revista de psicología*, 25 (2), 295-338.
- Fernández, A. M. (2011). Prejuicios y estereotipos. Refranes, chistes y acertijos, reproductores y transgresores. *Antropología Experimental*, (11).
- García, C. (2012). ¿Qué puede aportar el arte a la educación?: el arte como estrategia para una educación inclusiva. *ASRI: Arte y sociedad. Revista de investigación*, (1), 5-12.
- García-Ferrando (2006). *Postmodernidad y deporte: Entre la individualización y la masificación: encuesta sobre hábitos deportivos de los españoles, 2005* (38). CIS.
- García-Ferrando, M., & AA. VV. (1989). Sociedad, deporte y mujer. *Deporte y Mujer. Barcelona: Ayuntamiento de Barcelona*, 51-69.
- Giráldez, A., & Palacios, A. (2014). Educación Artística en Iberoamérica: Educación Primaria. *Madrid: Organización de Estados Iberoamericanos*.
- González, H. R. (2000). Las nuevas tecnologías y su impacto sociocultural y educativo. *Educere: Revista Venezolana de Educación*, (10), 63-70.
- Hernández, J. M. (2007). El valor pedagógico de los deportes alternativos. *Lecturas: Educación Física y Deportes*, Revista digital, (114), 17..
- Macía, O., Mensalvas, J. y Torralba, R. (2008). Roles de género y estereotipos. Fundación Esplai. <http://bit.ly/3tz7nS1>
- Maffia, D., & Cabral, M. (2003). Los sexos ¿son o se hacen?. *Sexualidades migrantes, género y transgénero*, 86-97.
- Martínez, M. T., Pardo, L., Ramírez, P., Victoria, C. & Villajos, S. (2011ko abenduaren 23a). *Encuesta. Deporte y machismo*. <http://bit.ly/3tCCP1B>
- Matito García, M. (2020). Presencia del deporte femenino en programas radiofónicos: Caso de El Partidazo de COPE.

- Matud Aznar, M. P., Rodríguez Wangüemert, C., Marrero Quevedo, R. J. y Carballeira Abella, M. (2002). *Psicología del género: implicaciones en la vida cotidiana*. Biblioteca Nueva.
- Menéndez, I. M. (2020). «You're made of what you do»: impulso del deporte femenino a través de estrategias de femvertising en Nike. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (38), 425-432.
- Mirzoeff, N. (2003). *Una introducción a la cultura visual*. Barcelona: Paidós.
- Mirzoeff, N. (2016). *Cómo ver el mundo. La nueva introducción a la cultura visual*. Barcelona: Paidós.
- Palacios, L. (2006). El valor del arte en el proceso educativo. *Reencuentro. Análisis de Problemas Universitarios*, (46), 36-44.
- Pastor, J. L. (2011). La aparición de la actividad físicodeportiva del «bello sexo» en España. Un referente histórico revelador. *La invención del «homo gymnasticus». Fragmentos históricos sobre la educación de los cuerpos en movimiento en Occidente*, 189-211.
- Pérez, C. (2006). La libertad de expresión, en el paradigma de las nuevas tecnologías y la sociedad de la información. *Revista Latina de comunicación social*, 9(61), 0.
- Pérez, J. L. (2012). Entre la ética y el deporte. José Luis Pérez Triviño, *Ética y deporte*, Bilbao, Descleé de Brouwer, 2011. *Dilemata*, (9), 271-277.
- Realkiddys (2017ko otsailaren 23a). *Inspirando al futuro sin estereotipos*. [Bideoa]. Youtube <https://bit.ly/37958LR>
- Requena, Ó. (2008). Juegos alternativos en educación física: flag football. *Revista digital Innovación y Experiencias Educativas*, 4, 1-10.
- Rivarola, M. F. (2003). La imagen corporal en adolescentes mujeres: su valor predictivo en trastornos alimentarios. *Fundamentos en humanidades*, (7), 149-161.
- Sáez-López, P. (1999). La importancia de la Educación Física en Primaria. *Apunts. Educación física y deportes*, 3 (57), 20-31.
- Sánchez, N. (2020). Diversidad de género: ¿Necesitamos una sociedad educada?.
- Sánchez, R., eta Rivero, A. (2013). 'Governmentality' in the origins of European female PE and sport: the Spanish case study (1883–1936). *Sport, Education and Society*, 18(4), 494-510.
- Simón, J. A. (2009): El papel de la mujer en el origen y desarrollo del deporte en España, 1900-1939. En L. Branciforte, C. González, M. Huguet, y R. Orsi (eds.), *Actas del primer Congreso Internacional. Las mujeres en la esfera pública. Filosofía e historia contemporánea* (pp. 77-102): Madrid: Compañía Española de Reprografía y Servicios S. A.

- TEDx Talks (2017ko urriaren 10a). *Revelando estereotipos que no nos representan* [Bideoa]. Youtube. <https://bit.ly/2YRoGQh>
- Torreadella-Flix, X. (2016). Fútbol en femenino. Notas para la construcción de una historia social del deporte femenino en España, 1900-1936. *Investigaciones feministas*, 7(1), 313-334.
- Triglia, A. (2019). Las 4 etapas del desarrollo cognitivo de Jean Piaget.
- Tuero, C. eta Zaprico, B., (2014). Evolución histórica y educativa del deporte femenino. Una forma de exclusión social y cultural. *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, (9), 216-232.
- Udry, J. R. (1994). The nature of gender. *Demography*, 31 (4), 561-573.
- Velázquez, W. (2010). Género: Roles de género en la sociedad. Gobierno de Chile. Interneten eskuragarri dagoen presentazioa: <http://bit.ly/3iqvzRQ> .
- Zarraga Llorens, M. (2016). Acontecimientos anónimos. Un proyecto artístico sobre la pantalla contemporánea. *AusArt*, 4 (1), 53-64.

9. ERANSKINAK

9.1. DISEINATUTAKO INKESTA

0. Inkesta. Datu pertsonalak

HERRIA			
ADINA			
GENEROA	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Ez binarioa

1. Inkesta. Irudizko inkesta

BOLEIBOL JOKALARIA	ERRUGBI JOKALARIA
--------------------	-------------------

IZENA:

BOXEATZAILEA

IZENA:

FUTBOLARIA

IZENA:

GIMNASTA

IZENA:

IGERILARIA

IZENA:

IZENA:

2. Inkesta. Idatzizko inkesta

1. EGITEN DUZU KIROLIK?
a) ZEIN(TZUK)?
b) ZENBAT ALDIZ?
2. GUSTATUKO LITZAIZUKE BESTE KIROLLEN BAT EGITEA?
a) ZEIN(TZUK)?
3. USTE DUZU KIROLA OROKORREAN GENERO BATI ZUZENDUTA DAGOELA?
a) ZEINI?
4. GIZONEZKOEK KIROLERAKO GAITASUN GEHIAGO DITUZTELA USTE DUZU?
a) ZEINTZUK?
5. EMAKUMEZKOEK KIROLERAKO GAITASUN GEHIAGO DITUZTELA USTE DUZU?
a) ZEINTZUK?
6. USTE DUZU KIROL KONKRETU BATZUK GENERO ZEHATZ BATI ZUZENDUTA DAUDELA?
a) ZEINTZUK?
GIZONEZKOEI:
EMAKUMEZKOEI:
EZ BINARIOARI:
7. KIROLARI OSPETSUEN ARTEAN GEHIAGO EZAGUTZEN DITUZU GIZONEZKOAK EDO EMAKUMEZKOA?
a) ZERGATIK DELA USTE DUZU?
8. KOMUNIKABIDEEK KIROL BATZUEI BESTE BATZUEI BAINO BISIBILITATE GEHIAGO EMATEN DIELA USTE DUZU?
9. KOMUNIKABIDEEK GENERO BATI BISUALITATE GEHIAGO EMATEN DIOTE?
a) ZEINI?
10. KOMUNIKABIDEEK JARTZEN DITUZTEN IRUDIEI DAGOKIENEZ, KIROLEAN GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOEN LORPENAK (SARIAK...) MODU BEREAN ADIERAZTEN DITUZTELA USTE DUZU?
11. PUBLIZITATE EDO MODA KATALOGOEI DAGOKIONEZ, GIZONEKO KIROLAREN ARLOAN, KIROLARIAK JARTZEN DITUZTE EREDU GISA?
12. PUBLIZITATE EDO MODA KATALOGOEI DAGOKIONEZ, EMAKUMEZKO KIROLAREN ARLOAN, KIROLARIAK JARTZEN DITUZTE EREDU GISA?
13. KIROLAEAN HASTEAN ZAILAGOA DELA GENEROREN BATENTZAT USTE DUZU?
a) ZEINENTZAT?
14. ETA MANTENTZEA?
a) ZEINENTZAT?
15. ETA KIROLETIK BIZITZEA?
a) ZEINENTZAT?

9.2. DISEINATUTAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

1. Saioa. PRENTSA KIROLEKO SEXISMOA

Zeregina	<p>Ikasleak talde txikietan jarriko dira. Talde bakoitzari goi mailako hainbat kirolariren irudi emango zaizkio. Irudiaren ondoan prentsak jarritako titularrak egongo dira. Titular horiek kirolarien lorpenak goraiatu beharrean beste gai batzuetan zentratzen dira, horietako adibide batzuk daude 1. irudian. Talde bakoitzak irudiaren inguruan hausnartu beharko du, lehendabizi arazoa identifikatu eta gero nola aldatuko luketen titularra adierazi. Hori egin ostean, talde bakoak gainontzekoei azaldu beharko die zer identifikatu duten eta nola aldatuko lukeen.</p> <p>Denbora izanez gero Always Latinoamerika (2017) youtubeko kanalak “¿Qué significa hacer algo #ComoNiña? Always” bideoa ikusiko da.</p>
Heziberri2020ko eduki multzoa	Arterako Konpetentzia: 4. Multzoa (erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea)
Taldekatzea	Talde txikietan (4-5)
Materiala	Aurretik prestatutako komunikabideetako titular sexistak
Espazioa	Gela
Denbora	45 min

2. Saioa. NOLA JANTZI KIROLA EGITEKO

Zeregina	<p>Talde osoan hainbat irudi aztertuko dira. Hautatutako irudiak kirolean janzkerak duen pisuaren inguruan hausnartzekoak izango dira. Irudi horiek bere garaian polemikak sortu zituzten, kirol batzuek dituzten ulergaitzak diren arauen ondorioz edo gizartek barneratuta daukan kirolaren irudia aldatzeagatik. Honetarako erabiliko diren irudien adibide batzuk daude 2. irudian. Irudiak banan-banan landuko dira eta jarrera kritikoa pizteko asmoarekin eztabaida eskatuko zaie eta ideia nagusiak arbelean apuntatuko dira.</p> <p>Amaieran ondorioak nagusiak aterako dira eta polemikak nola amaituko lituzketen adostuko dute.</p>
Heziberri2020ko eduki multzoa	Arterako Konpetentzia: 4. Multzoa (erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea)
Taldekatzea	Talde osoa
Materiala	Kiroleko arropen inguruan izan diren polemiken irudiak eta arbela
Espazioa	Gela
Denbora	45 min

3. Saioa. KIROLARIAK ALA JAINKOAK?

Zeregina	<p>Talde osoari 3. irudiari dagokion irudia erakutsi eta bertako egoera azalduko zaio. Ikasleak binaka jarriko dira eta ordenagailuetan ikertu egin beharko dute irudian eserita agertzen den neskak jasotako goraiamenen eta, batez ere, kritiken arrazoen zergatia. Horren ostean bikote bakoitzak ondorioak atera partekatu egin beharko ditu.</p> <p>Amaitzeko youtubeko eitb (2020) kanalak igotako <i>Izaro: "Zuen usteen eta legeen kontra, gora borroka feminista!"</i> bideoa jarriko zaie. Gai berarekin lotuta dagoenez, ikasleei Izarorekin bat datozen edo ez hausnartu beharko dute, baita salatutako jarrerak gaur egun askotan errepikatzen diren ere.</p>
Heziberri2020ko eduki multzoa	Arterako Konpetentzia: 4. Multzoa (erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea)
Taldekatzea	Binaka eta talde osoa
Materiala	Ordenagailuak.
Espazioa	Ordenagailuak izanez gero gelan, bestela informatika gelan.
Denbora	45 min

4. Saioa. ANTZERKI FEMINISTAK

Zeregina	<p>Aurreko saioetan zehar landutakoa gogoratuko dugu ideia zaparrada azkar baten bitartez. Ideia guztiak arbelean apuntatuko ditu irakasleak. Ikasleak lau taldetan banatuko dira eta talde bakoitzari ideia multzo bat esleituko zaio, gero ideia horiekin antzerki bat sortu beharko baitute. Antzerkia taldeko partaideek aurrera eramateko modukoa izan behar da, beraz kontuan izan beharko dute pertsonaia kopurua. Antzerkiak arazo bat landu beharko du eta horri soluzioa eman beharko zaio.</p>
Heziberri2020ko eduki multzoa	Arterako Konpetentzia: 4. Multzoa (erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea)
Taldekatzea	4 talde
Materiala	Arbela eta antzerkia sortzeko behar duten materiala
Espazioa	Gela
Denbora	Saio osoa (denboraz oso gaizki bagabiltza bi saio)

5. Saioa. KIROLEAN DENOK BERDIN

Zeregina	<p>Aurreko egunetan sortutako antzerkiak eramango dituzte taldeak aurreko saioan sortuta egongo dira. Entseatzeko aukera izango dute antzerkia aurrera eraman arte. Antzerkian zerbait salatuko dute eta beraien mezua zein izan den azaldu beharko dute amaieran.</p> <p>Klasearen ostean irakasleak kirol alternatiboak zer diren azalduko su eta horietako baten arauak emango dizkie hurrengo egunerako ulertuta izateko.</p>
Heziberri2020ko eduki multzoa	Konpetentzia motorra: 3. Multzoa. (Gorputz-adierazpena eta komunikazioa)
Taldekatzea	4 talde
Materiala	Antzerkiak eta antzerkirako behar dituzten materialak
Espazioa	Gela
Denbora	Batutako bi saio, 45min+45min= 1h 30min (entsegua 40', antzerkiak, 20', amaierako azalpena 10')

6. Saioa. PINFUBOTE EZAGUTZEN

Zeregina	<p>1-Zenbat toke egin ditzakegu baloiarekin? Ikasleak indibidualki egongo dira zelaian sakabanatuta. Bakoitzak, nahi duen gorputz atala erabiliz baloiarekin tokeak egiten ahaleginduko da, gorputzaren atal bat baino gehiago erabili ahal izango dute (hankak, belaunak, eskuak, burua...). Arau bakarra ezingo dutela hartu da. Hasieran 10 toke egiten saiatuko dira eta lortu duenek 20 toke egiten saiatuko dira erronka gisa</p> <p>2-Taldekiekin ekin. Bikoteka daudela, haien artean paseak egingo dituzte, baina araua mantendu egingo da: ezingo dute baloia hartu. Baloiak boteak eman ditzake bote kopurua kontuan izan gabe. Lehenengo eskuekin bakarrik arituko dira paseak egiten. Ondoren, aldaerak sartuko dira: Eskuekin eta buruarekin paseak, oinekin (bakarrik), eta nahi duten gorputz-atalarekin, baina aurrekoaren gorputz atala ezingo dute errepikatu (aurrekoak eskuarekin eman badio besteak ezingo du eskuarekin berriro eman) Horrela, beti gorputz atal berdinarekin ematea ekidingo da.</p> <p>3-Ondoren, hirukoteka jarriko dira eta rolak banatuko dituzte: batek eskuarekin emango dio, beste batek buruarekin eta hirugarren ikasleak, oinarekin. Gero rolak aldatzen joango dira. Azkenik, 8 ikaskideko taldeak egingo dira eta zirkulu batean jarriko dira. Dinamika berdinarekin jarraituko dute, baloia pasatu beharko dute nahi duten gorputz atalarekin.</p> <p>Denak zirkuluan eseriko dira eta talde handian saioaren inguruan hausnartuko dute, gehienbat nola sentitu diren galdetuz.</p>
Heziberri2020ko eduki multzoa	5. MULTZOA. (Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza)
Taldekatzea	Banaka, binaka, hiruak, 8naka
Materiala	Baloiak
Espazioa	Kiroldegia
Denbora	2 saio (1-15', 2-20', 3-20' azken hausnarketa 10')

7. Saioa. BALOIA MENPERATZEN

Zeregina	<p>1-“Etxea garbitu” Bi talde arituko dira bata bestaren aurka, zelai bat bitan banatuko da. Talde bakoitzak bere eremuan baloi kopuru bera izango du. Ikasleek beste taldearen zelaira baloiak pasa beharko dituzte denbora tarte jakin batean. Helburua bakoitzaren zelaian ahalik eta baloi gutxien egotea da. Baloiak beste zelaira pasatzeko, gorputzaren edozein atal erabili daiteke. Behin irakasleak txistua jota, ikasleak baloiak beste aldera pasatzeari utziko diote eta horiek zenbatuko dira ea zenbat baloi dauden talde bakoitzaren zelaian jakiteko.</p> <p>2-“Baloia menperatzen” Jarduera honetan, klasea 6 pertsonetako taldeetan banatuko da. Jolasaren helburua talde bakoitzak, borobilean jarrita, baloia lurrean bote bakarra emanaz, talde bereko kideen artean 10 aldiz pasatzea da. Baloiak bi bote ala gehiago egitekotan, berriro hasi beharko liriateke hasieratik. Talde batek lortzekotan, proposatuko saiek hurrengo saiakeran 20 bote ematera heltzea izango dute jomugatzat,. Baloia ezingo da hartu eta kolpeen bidez bakarrik mugitu beharko da.</p> <p>*Beste aldaera batzuk: serieak jarri ahal daitezke, adibidez, lehenengo pasean bote batekin eta bigarren pasean bi boterekin...</p> <p>3-“A,E,I,O,U jolasa” Jolas honetan, klasea bitan zatituko da. Klase erdi bakoitzak baloi bat izango du eta zelaiaren erdi batean kokatuko da. Ereku bakoitzean zehar kono batzuk kokatuko dira eta ikasleek lurra ukitu gabe baloia beraien artean pasatzen saiatu behar dira pase bat egiten duten bitartean bokal baten izena esanez. “U”-ra heltzean kono baten kontra jaurti beharko dute. Aurreko jardueran bezala, baloia ezingo da hartu eta kolpeen bidez mugitu beharko da.</p> <p>* Errazegi egiten badute, pixka bat zailtzeko, aldaera bat sartuko litzateke. Aldaketa, bokal bakoitzari gorputz atal bat egokitzea izango da; hortaz, letra jakin bat tokatzen zaionak, letra horri dagokion gorputz atalarekin eman beharko dio.</p> <p>4-“Baloi-masajeak” Jarduera honetan, ikasleak binaka jarriko dira eta, baloiak erabilia, bere bikoteari masajeak emango dizkiote. Denbora bat pasa eta gero, rolak trukatu dira.</p>
Heziberri2020ko eduki multzoa	5. MULTZOA. (Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza)
Taldekatzeta	Seinaka, bi talde, binaka
Materiala	Baloiak
Espazioa	Kiroldegia
Denbora	2 saio (1-10', 2-20', 3-20', 4-10')

8. Saioa. SAREAREKIN LEHEN KONTAKTUA

<p>Zeregina</p>	<p>1-“Gurutzea” Suediar bankuekin hainbat zelai egingo dira, zelai bakoitzean lau banku jarriko dira gurutze forman (zelaia lau zatitan banatuz). Ikasleek bikoteak osatuko dituzte eta bikote bakoitza zelaiaren zati (laurden) batean jarriko da. Zelai bakoitzean baloi bat egongo da eta helburua norbere zatian baloiak bi bote jarraian ez egitea izango da. Horretarako partaideen artean baloia pasatzen joan behar dira.</p> <p>Baloiarekin eskuekin bakarrik eman ahal zaio, baina ezin izango dute hartu. Norbere zelaian bote bat eman dezake gero beste zelai batera pasatzeko. Laurden batean bi bote eman ez gero, laurden horretakoa ez den baloia ukitu duen azken bikoteak puntu bat eskuratuko du. Haien artean paseak egin ahal dituzte, baina pertsona berdinak ezin dio bi aldiz jarraian eman.</p> <p>2-“Patata beroa” 6 pertsonako taldeak egingo dira. Talde guztiak kiroldegiaren alde batean jarriko dira eta talde bakoitzak uztai bat izango du beraien parean, baina kiroldegiaren beste muturrean. Helburua taldekideen artean paseak eginez baloi bat uztaian sartzea da. Horretarako baloia ezin da heldu eta eskuak bakarrik erabil ditzakete. Aurreko jardueran bezala kide bakoitzaren artean bote bakarra eman daiteke, bestela airean eman beharko zaio.</p> <p>*Aldaera: uztailarekiko distantzia aldatu / talde txikiagoetan egin / Gorputzeko atal bat zehaztu baloiarekin emateko / puntuazio desberdina duten kolore eta tamaina desberdinetako uztailak jarri / bidean oztopoak jarri haiek saihestu ditzaten.</p> <p>3-“Simulakroa” Aurreko jolaseko taldeak mantenduko dira. Dinamika antzekoa izango da; izan ere, eskuekin bakarrik eman ahal zaio eta toke bakoitzaren artean gehienez bote bat eman ahal izango da, baina oraingo honetan beste elementu bat sartuko da: sarea. Hori kontuan izanik sareak zeharkatzen dituen bi zelai egongo dira. Talde bakoitza sarearen alde batean jarriko da. Helburua taldekideek hiru aldiz ukituta beste aldera pasatzea izango da, gero besteek bueltarazteko. Ez da aurkaritzarik egongo, helburua baloia ez erortzea izango baita.</p> <p>* Aldaera: Taldekide guztiek ukitu beharko dute baloia beste aldera pasatu aurretik.</p>
<p>Heziberri2020ko eduki multzoa</p>	<p>5. MULTZOA. (Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza)</p>
<p>Taldekatzeta</p>	<p>Zortzinaka, seinaka</p>
<p>Materiala</p>	<p>Baloiak, suediar bankuak, uztaiak, sarea</p>
<p>Espazioa</p>	<p>Kiroldegia</p>
<p>Denbora</p>	<p>2 saio (1-20', 2-15', 3-30')</p>

9. Saioa.BALOIARI EMATEKO MODU EZBERDINAK

<p>Zeregina</p>	<p>1-“Sakea, tokeak eta erremateak lantzen” Uztai bat jarriko da sarearen alde batean, sakea egiten duenak handik egin beharko baitu sakea. Beste aldean beste hiru ikasle egongo dira. Batek, baloia bere aldera datorrenean heldu edo, ahal badu, kolpatu egingo du, bere zelaian dagoen beste kide bati pasatzeko; honek hirugarren kidearengana zuzenduta gauza bera egin beharko du eta azkenak zelaiaren beste aldera botako du. Batek baloia eskuekin joko du, beste batek buruarekin eta azkenak beste aldera pasatzeko nahi duen gorputz atala erabiliko du erremate baten bidez. Beste aldean, beste ikasle bat ikaslea egongo da baloia hartzeko asmoarekin. Rolak aldatzen joango dira.</p> <p>2-“Lehengo partiduak” Lehengo partiduak jolasten hasiko dira, baina burua eta eskuak erabiliz bakarrik. Sakea uztaitik egin beharko da eta gehienez 3 ukitu eta ukitu bakoitzaren tartean bote bakarra eman ahalko da, <i>pinfuboteko</i> partidu bat izango balitz bezala, baina hankak erabili gabe eta puntuazioa zenbatu gabe.</p> <p>Helburua haiek ahal edota nahi duten moduan baloia kolpatzea da. Hankak oraindik ez dira erabiltzen; izan ere, normalean jolastorduetan gehien nabarmentzen den kirola futbola da, beraz baloiari emateko beste modu edo teknika batzuk aurkitu behar dituzte.</p> <p>3-Fut-tenis” 4vs4 tenis partidu bat jolastuko dute baina hankak erabiliz, sarearekin. <i>Pinfubotearen</i> arauak erabiliko dira, gehienez baloiak 3 bote eman ditzake, betiere ez badira jarraian 2 ematen, eta talde bakoitzak 3 toke ditu gehienez. Ez dira puntuak zenbatuko eta sakea librea izango da, hau da, jokoa eteten denean baloiak ihes egin duelako edo ez duelako sarea pasatu, edonork aterako du.</p>
<p>Heziberri2020ko eduki multzoa</p>	<p>5. MULTZOA. (Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza)</p>
<p>Taldekatzea</p>	<p>Seinaka</p>
<p>Materiala</p>	<p>Baloiak, sarea, uztaiak</p>
<p>Espazioa</p>	<p>Kiroldegia</p>
<p>Denbora</p>	<p>2 saio (1-20', 2-25', 3-20')</p>

10. Saioa. PINFUBOTE PARTIDUAK

Zeregina	<p>1-“Posizioaren lanketa” Zelaiaren ezaugarriak erakutsiko zaizkie: aurreko eta atzeko zonak zeintzuk diren, erdiko borobiletik atera behar dela... 6ko taldeak osatuko ditugunez, bakoitzak bere eremua errespetatzen jakin dezan zelaia 6 zatitan banatuko da.</p> <p>Talde bereko kideek, kolore desberdinetako petoak izango dituzte, horren arabera irakasleak irizpideak esango baititu, esaterako: peto urdindunek eskuarekin bakarrik eman dakioke, peto gorridunek buruarekin, peto horidunek oinekin... Rolak aldatzen joango dira eta talde batekin aurkaritzan egon arren, ez dute puntuaziorik izango oraindik.</p> <p>2-“Pinfubote partidua” <i>Pinfubote</i> partiduak egiten hasiko dira aurreko jolasen bidez ikasitako guztia martxan jartzeko. Beraz, zelaiaren aurreko zona eta atzeko zona bereiziko dira, hau da, bakoitzak bere eremua izan beharrean zona bereko kideekin komunikatzeko beharra izango dute. Bi zelai daudenez aldi berean bi partidu egongo dira eta 6 vs 6 egiturakoak izango dira. Talde guztiekin jarduteko, zelai eta aurkari aldaketak egingo dira.</p> <p>3-“Hausnarketa sakona” Saioa amaitzeaz gain, gaiari ere bukaera emango zaio, horregatik azken egunetan landutako guztiaren hausnarketa sakona egingo da.</p>
Heziberri2020ko eduki multzoa	5. MULTZOA. (Kultura motorra: aisia eta denbora liberako hezkuntza)
Taldekatzea	Seinaka
Materiala	Baloiak, sarea, uztaiak, petoak
Espazioa	Kiroldegia
Denbora	2 saio (1-20', 2-35', 3-15')